**ORDEN del 21 de marzo de 2018 del Consejero de de Gobernanza Pública y Autogobierno por la que se aprueba con carácter previo el proyecto de ley de Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.**

Mediante Orden de 26 de octubre de 2017 el Consejero de de Gobernanza Pública y Autogobierno ordenó el inicio del procedimiento para la elaboración y aprobación de un proyecto de ley de modificación de la ley 8/2003, de 22 de diciembre, del procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general.

La citada Orden se remitió a la Dirección de Desarrollo Legislativo y Control Normativo a los efectos de la elaboración del citado proyecto de ley, fruto de cuya labor se ha elaborado el presente proyecto, redactado ya de un modo bilingüe siguiendo las previsiones del acuerdo de Consejo de Gobierno de 14 de mayo de 2013 "por el que se aprueban las medidas para la elaboración bilingüe de las disposiciones de carácter general que adopten la forma de ley, decreto legislativo, decreto u orden".

Por todo ello, visto el texto del proyecto de Decreto elaborado,

**RESUELVO:**

**Primero.-** Aprobar con carácter previo el texto bilingüe del proyecto de ley de Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, de conformidad con lo previsto en el artículo 7 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general.

**Segundo.-** Ordenar la continuación de la tramitación del procedimiento del proyecto de ley de Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, de conformidad con los trámites establecidos en la Orden de inicio y en la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general, con carácter previo a su remisión al Consejo de Gobierno para su aprobación.

En Vitoria-Gasteiz a 21 de marzo de 2018

El Consejero de Gobernanza Pública y Autogobierno

JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO

| Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legea | Ley del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General. |
|---|---|
| **Zioen azalpena** | **Exposición de motivos** |
| Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen jatorrian izan zen behar berberari erantzutea dago lege honen jatorrian ere, 8/2003 Legea aldatzea eta beste lege batean integratzea baita helburua. Ezinbestekoa izaten jarraitzen du, beraz, helburu orokor moduan, Eusko Jaurlaritzaren proiektu arauemaile guztiak sortzeko prozedura antolatzeak, hala eskatzen dutelako, batetik, herritarren eskubideekiko errespetuak eta, bestetik, botere publikoen egintza guztiek erabat legearen eta zuzenbidearen pean egon behar dutela dioten zuzenbideko printzipioek. | Los motivos que dan origen a la elaboración de esta Ley siguen centrándose en atender a la misma necesidad que dio origen a la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, que es objeto de modificación y reintegración en una nueva ley. Sigue siendo necesario por tanto, como objetivo general, ordenar el procedimiento que da vida a todos los proyectos normativos del Gobierno Vasco, respondiendo así a las exigencias que derivan del respeto a los derechos de la ciudadanía y a los principios jurídicos que garantizan el sometimiento de todos los actos de los poderes públicos a la Ley y al Derecho. |
| Legea eguneratzea eta hobetzea da zalantzarik gabe lortu nahi den helburu generikoena, kontuan hartuz lege hori aitzindaria izan zela gure arau-produktuen kalitate hobea sustatu nahi izaten, helburu horiek berberak dituen Europako korrontearekin bat eginez, besteak beste, bide hauek erabilita: erregulazio onaren printzipioak aplikatuta eta arauek izan ditzaketen ondorioen aurretiko analisiak egiteko tresnak bultzatzeko neurriak hartuta, proposamenak lantzerakoan aurretiko kontsultak eginda eta herritarren partaidetza bultzatuta edo hausnarketetarako metodo orokor gisa aurretik eta ondoren ebaluazioa sartuta, helburu izanik indarrean dagoen araudiaren aldizkako berrikusketari arrakastaz aurre nola egin jakiteko adierazle zehatzak lortzea. | Los objetivos más genéricos perseguidos se orientan obviamente a actualizar y mejorar la Ley, teniendo en cuenta que ya fue pionera en sus pretensiones de promover una mayor calidad de nuestros productos normativos, en sintonía con la corriente europea que busca esos mismos objetivos, entre otras herramientas, a través de la aplicación de principios de buena regulación y de la introducción de medidas en el sentido de promover los instrumentos de análisis previos de los efectos de las normas, la consulta previa y la participación ciudadana en la elaboración de las propuestas, o a través de la introducción de la evaluación como método generalizado de reflexión antes y después, a fin de llegar a obtener los indicadores más precisos sobre cómo afrontar con éxito la revisión periódica de la normativa vigente. |
| Horrenbestez, indartu egiten da Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren | Se refuerza de esa manera el objetivo ya declarado de la Ley 8/2003, de 22 de |

| | |
|---|---|
| 22ko 8/2003 Legean jasotako helburua: “egingo diren arauek oinarri objektibo bat izan dezatela, teknika juridiko egokiaren arabera eman daitezela eta gizarteak onets ditzala” lortzea, “pentsaera liberalak erregearen absolutismoa irauli eta legearen funtsa erregearen kontrolik gabeko nahi hutsetik atera eta arrazoian ezarri zuen moduan (nec voluntas sed ratio facit legem)”. | diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, de procurar “que las futuras normas se asienten en un fundamento objetivo, se formulen con una técnica jurídica adecuada y obtengan una respuesta favorable de la sociedad” del mismo modo que “el pensamiento liberal invirtió los términos del absolutismo regio y fundamentó la Ley en la razón y no en la desnuda voluntad incontrolada del monarca (nec voluntas sed ratio facit legem)”. |
| Asko dira, bestalde, helburu zehatzagoak. Aipatuko dugu, batetik, egokia dela xedapen orokor deitutakoak egiteko prozeduran izaten diren mugarrien zehaztapena aztertzea, aldatu nahi den legea onetsi zenetik igarotako denborak ezartzen dituen errekerimenduen ondorioz, eta, bestetik, ordutik zenbait legek ekarri dituzten aldaketetara ere egokitu behar dela arau hori, eta prozedurak modernizatu beharra ere izaten dela. | Hay por otra parte una variada gama de objetivos más concretos. Citaremos tanto la procedencia de revisar la determinación de los hitos que se suceden en el procedimiento de elaboración de las llamadas disposiciones de carácter general, fruto de los requerimientos que impone el tiempo transcurrido desde la aprobación de la Ley que se pretende modificar, como la exigencia de adaptar dicha regulación a los cambios que han introducido desde entonces también diversas leyes y a la propia exigencia que nos impone el reto de modernizar los procedimientos. |
| Lege honekin, halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa zaintzen aurreratuko da, eta, horretarako, bi legek oinarrian eragin dituzten legegintza-aldaketak aztertuko ditugu eta berehalako erantzuna emango –2015eko 39 eta 40 Legeez ari gara, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren legeez, hurrenez hurren–, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren antolaketara eta funtzionamendura egokitzeko eta horietan integratzeko, helburu zehatz bat izanik: euskal legeak arautzen dituen gainerako izapideekiko harmonia lortzea. | Con esta Ley se avanza asimismo en preservar el principio de seguridad jurídica, deteniéndonos al efecto en el análisis y en la respuesta inmediata que nos exigen los cambios legislativos que inciden con carácter básico desde las Leyes 39 y 40 de 2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y del Régimen Jurídico del Sector Público, respectivamente, para adaptarlos e integrarlos en la organización y funcionamiento de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, con un objetivo preciso de lograr la armonía con el resto de trámites que regula la Ley vasca. |
| Euskal legeriatik datozen ekarpenei dagokienez, ezinbestekoa da Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 | En cuanto a las aportaciones que derivan de la propia legislación vasca, es preciso reconocer e integrar adecuadamente en el |

| | |
|---|---|
| Legeak ezartzen duen udal-autonomia bermatzeko sistema berria eta zehatza onartzea eta aztertzen ari garen prozeduran behar bezala integratzea. Horretarako, alerta goiztiarreko mekanismoa denbora eta modu egokian ezartzeko ahalegina egin da, eta, ondorioz, aipatu legearen bidez sortutako Tokiko Gobernuen Batzordeari nahitaezko txostena egiteko eskumena esleitzen zaio, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ematen dituen eta udal eskumenei eragiten dieten xedapen orokorrak egiteko prozeduretan. | procedimiento que nos ocupa el nuevo y depurado sistema de garantía de la autonomía municipal que instaura la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi. A tal fin, se procura la inserción en tiempo y forma idóneos, del mecanismo de alerta temprana que supone la atribución a la Comisión de Gobiernos Locales que crea dicha Ley de la emisión de un informe preceptivo en los procedimientos de elaboración de las disposiciones de carácter general que afecten a las competencias municipales y que se adopten en la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi. |
| Orain aldatzen den legea bermatu zuten zuzenbide-oinarri habilitagarri berberak ditu oinarrian lege honek ere, Gernikako Autonomia Estatutuan aurreikusitako oinarrizko eskumen-euskarri bikoitza duela, bai 10.2. artikuluan jasotakoa, autogobernurako gure instituzioen antolaketa, araubide eta funtzionamenduaren arloko eskumen esklusiboa, bai 10.6. artikuluan jasotakoa, gure zuzenbide substantibotik eta Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko antolamendutik datozen administrazio-prozeduraren arauak ezartzeko dugun gaitasunaren arlokoa. | Los fundamentos jurídicos habilitantes en que se apoya la presente Ley son los mismos que respaldaron la Ley ahora modificada, con un doble soporte competencial principal, previsto en el Estatuto de Autonomía de Gernika, tanto en el artículo 10.2, sobre nuestra competencia exclusiva en materia de organización, régimen y funcionamiento de nuestras Instituciones de Autogobierno, como en el artículo 10.6, referido a nuestra capacidad para establecer las normas de procedimiento administrativo que deriven de las especialidades de nuestro Derecho sustantivo y de la organización propia del País Vasco. |
| Azaltzen ari garen prozedura –arauak egitekoa– araugintzaren kontrol- eta gainbegiratze-jarduera arautzen duten zenbait sektore-legeekiko erreferente denez, indarrean dagoen arautegian izango duen eraginak erreferente izate horrekin du zerikusia; hor dira, halaber, beste zenbait lege (hala nola Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea), zeinak aurkituko duten lege honetan bakoitzaren ekintzetan sakontzeko tresna baliagarri bat, edo Administrazioaren beraren esparru-arauak ere bai, zeinak egingarritasun material handiagoa izan dezaten bilatu nahi den, dagoeneko abian ditugun prozedurak hobeto | La incidencia previsible en la normativa en vigor tiene que ver con la caracterización de referente que tiene el procedimiento del que nos ocupamos -para elaborar las normas- respecto a diversas Leyes sectoriales que regulan la actividad de control y supervisión de la producción normativa, pasando por las Leyes que, como la Ley de Igualdad de hombres y mujeres, tienen en esta Ley un instrumento valioso para profundizar en su acción, o el resto de regulaciones domésticas de la Administración, respecto a las que se busca una mayor factibilidad material, para mejor adaptar a los contextos que imponen los nuevos fenómenos de digitalización, |

| | |
|---|---|
| egoki daitezen digitalizazio, gardentasun, herritarren partaidetza edo ebaluazioko fenomeno berriek ezartzen dituzten testuinguruetara, prozedurak finkatu eta hobetu egin behar baitira efikazia areagotzeko. | transparencia, participación ciudadana o evaluación, los procedimientos que ya tenemos en marcha y que es preciso consolidar y mejorar para ganar en eficacia. |
| Azpimarratzekoa da, gobernantza onaren esparruan, gobernu-ekintzaren barruan sartu direla XI. Legegintzaldian Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea indarrean sartzeak ekarri dituen eskakizunak. Aipatutako lege horren 132. artikuluan xedatzen denez, Urteko Araugintza Plana argitaratuko da, non hurrengo urtean Eusko Jaurlaritzak onesteko igorriko diren lege- edo erregelamendu-ekimenak jasoko diren. Eta gardentasun-atarian ere argitaratuko da Urteko Araugintza Plana, onetsi ostean. | Es de señalar que en el marco de la buena gobernanza, en la XI Legislatura se incorporan a la acción de gobierno las exigencias derivadas de la entrada en vigor de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. Así, de acuerdo con lo establecido en el artículo 132 de la mencionada Ley, se hará público un Plan Anual Normativo que contendrá las iniciativas legales o reglamentarias que vayan a ser elevadas para su aprobación en el año siguiente por el Gobierno Vasco. Asimismo, una vez aprobado el Plan Anual Normativo, éste se publicará en el portal de transparencia. |
| Aurretik aipatutako guztia kontuan hartuta, eta orain arte indarrean dagoen 8/2003 Legeari zenbat aldaketa egiten zaizkion ikusita, beste testu artikulatu oso bat onestea proposatzen da, lege bakar honetan sar daitezen xedapen orokorrak egiteko prozedurarekin zerikusia duten arau guztiak. | Visto todo lo anterior y dado el caudal de cambios que se introducen sobre el texto de la hasta ahora vigente Ley 8/2003, se ha optado por la opción de someter a aprobación un nuevo texto articulado completo que incorpore e integre en esta única Ley todas las normas concernientes a la materia del procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general. |
| **I. kapitulua.- Xedapen orokorrak.** | **Capítulo I.- Disposiciones generales.** |
| **1. artikulua.- Legearen xedea eta lege-erreserbaren irismena.** | **Artículo 1.- Objeto de la ley y alcance de la reserva legal.** |
| 1. Xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzea da lege honen xedea.<br>2. Lege bidez eta modu arrazoituan baino ezin izango dira sartu izapide gehigarriak edo lege honetan ezarri ez diren beste izapide batzuk, baldin eta izapide horiek prozeduran ez egoteak eragina izango badu hartutako xedapenen baliozkotasunean eta | 1. La presente Ley tiene por objeto el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general.<br>2. Sólo mediante ley, cuando resulte eficaz, proporcionado y necesario para la consecución de los fines propios del procedimiento, y de manera motivada, podrán incluirse trámites preceptivos |

| | |
|---|---|
| eraginkortasunean; eta, betiere, izapide horiek sartzea efikaz, neurrizko eta beharrezkoa bada prozeduraren berezko xedeak lortzeko. | adicionales, o distintos a los contemplados en esta Ley, cuya ausencia en el procedimiento afecte a la validez y eficacia de las disposiciones adoptadas. |
| 3. Sektoreko legeek edo elaborazio-prozedura aldatzeko berariazko xedea ez duten legeek, berariaz eta zuzenean aldatu beharko dute Lege hau xedapenak egiteko prozedura guztietan oro har eta nahitaez sartu beharreko edozein izapide sartu nahi badute, edota gaiaren araberako prozedura berezia dagoela ohartaraztea nahi bada, prozedura horietan baino eska daitekeen izapide berriren bat sartzea nahi badute. | 3. Las leyes de carácter sectorial o que no tengan como objeto expreso la modificación del procedimiento de elaboración, deberán proceder a la modificación expresa y directa de esta Ley cuando pretendan introducir cualquier trámite que preceptivamente deba ser considerado con carácter general en todos los procedimientos de elaboración de disposiciones, o para advertir la existencia de un procedimiento especial por razón de la materia, cuando pretendan introducir algún nuevo trámite que sólo deba ser exigible en dichos procedimientos. |
| 4. Ez dira prozedura berezitzat hartuko, nahiz eta gainerako guztian Lege honetan xedatutako izapideak bete, berezitasun bakartzat gaiaren arabera nahitaezko txostenen bat eskatzea duten prozedurak. | 4. No tendrán la consideración de procedimientos especiales aquellos que, siguiendo en todo lo demás los trámites dispuestos en esta Ley, únicamente incluyan como peculiaridad del mismo la exigencia de algún informe preceptivo por razón de la materia. |
| 5. Prozeduraren berezitasunak erregelamenduz ezarri ahal izango dira, hain zuzen, edukiari, eskakizun formalei edo bildu behar diren txostenak egiteko moduari buruzkoak. Halaber, erregelamendu bidez ezarri ahal izango da beste izapide batzuk egiteko aukera, hau da, nahitaezkoak ez diren izapide osagarriak edota prozeduran ez egoteak 2. apartatuan adierazitako baliogabetze ondorioak ekarriko ez dituztenak. | 5. Reglamentariamente podrán establecerse especialidades del procedimiento referidas al contenido, los requisitos formales o el modo de elaboración de los informes a recabar. También podrá introducirse reglamentariamente la posibilidad de llevar a cabo trámites complementarios o a mayor abundamiento de carácter no preceptivo o cuya ausencia en el procedimiento no tendrá los efectos invalidantes a los que se refiere el apartado 2. |
| **2. artikulua.- Aplikazio-eremua eta gaiaren araberako prozedura bereziak.** | **Artículo 2.- Ámbito de aplicación y procedimientos especiales por razón de la materia.** |
| 1. Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak egiten dituzten xedapen orokorrei ezarriko zaie lege hau. Lege-mailako arauetan bestelako prozedura espezifiko bat ezarrita dutenak prozedura horren arabera egingo dira; hala ere, lege honetan ezarritakoa modu osagarrian aplikatuko da. | 1. Esta ley se aplica a las disposiciones de carácter general que elaboran el Gobierno Vasco y la Administración general de la Comunidad Autónoma. Aquellas que tengan establecido en normas con rango de ley un procedimiento de elaboración específico se elaborarán conforme a éste, sin perjuicio de |

| | |
|---|---|
| 2. Jarraian zehaztutako gaiak arautuko dituzten xedapen orokorrak egiteko prozedurak beren araudi espezifikoak ezarritakoa jarraituko du, eta modu osagarrian Lege honek ezarritakoa:<br>a) Tributu- eta aduana-gaietakoak, baita tributuak aplikatzeko prozedurei buruzkoak edo haiek administrazio-bidean berrikusteari buruzkoak.<br>b) Gizarte Segurantzaren arloan Estatuaren oinarrizko legeria garatzeko eta oinarriak betearazteko edo Gizartea Segurantzaren araubide ekonomikoa kudeatzekoak.<br>c) Tributu- eta aduana-gaietako, lan-arloko, trafikoaren eta bide-segurtasunaren arloko eta atzerritartasun-arloko jarduketa eta zehapen-prozedurak arautzekoak.<br>d) Ingurumen arlokoak.<br>e) Aurrekontu arlokoak. | la aplicación supletoria de lo establecido en esta Ley.<br>2. El procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general que tengan por objeto regular las siguientes materias, se regirá por su normativa específica y supletoriamente por lo dispuesto en esta Ley:<br>a) Las de materia tributaria y aduanera, así como las relativas a los procedimientos de aplicación de los tributos o su revisión en vía administrativa.<br>b) Las de desarrollo legislativo o ejecución de la legislación básica del Estado en materia de Seguridad Social o de gestión del régimen económico de la Seguridad Social.<br>c) Las que regulen actuaciones y procedimientos sancionadores en materia tributaria o aduanera, en el orden social, en materia de tráfico y seguridad vial o en materia de extranjería.<br>d) Las de materia mediambiental.<br>e) Las de materia presupuestaria. |
| **3. artikulua.- Arau-xedapen orokorraren kontzeptua.** | **Artículo 3.- Concepto de disposición normativa de carácter general.** |
| 1.- Lege honen ondorioetarako, arau-xedapen orokorrak dira, edozein gairen gainekoak izanik ere, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo aginduaren forma hartzen dutenak, eta antolamendu juridikora berrikuntzak dakartzaten arau juridikoak dauzkaten eta zehaztutako edo zehaztu gabeko epe baterako mota askotako egintzen oinarri diren xedapenak. | 1.- A los efectos de esta ley, se entiende por disposiciones normativas de carácter general las que, cualquiera que sea la materia sobre la que versen, adopten la forma de ley, decreto legislativo, decreto u orden, y contengan normas jurídicas que innoven el ordenamiento jurídico sirviendo de fundamento para una pluralidad de actos durante un lapso de tiempo determinado o indeterminado. |
| 2.- Ez dira halakotzat joko, nahiz eta batzuk eta besteak organo berek emanak izan eta arau-xedapen orokorren forma berbera hartu, hartzaile-multzo zehatzei edo zehaztu daitezkeenei eragiten dieten administrazio-ebazpen edo xedapen partikularrak, ez eta xedapen orokorrak, betiere batzuk eta besteak administrazio-egintzatzat baino hartzen ez badira, eta iraunkortasun-asmorik ez izanik, behin aplikatuta agortzen direnak, nahiz eta mota askotako kasuetan aplikatzeko | 2.- No tienen tal consideración, aunque emanen de los mismos órganos y revistan la misma forma que las disposiciones normativas de carácter general, ni las resoluciones administrativas o disposiciones de carácter particular, ni aquellas disposiciones de carácter genérico que afecten a una pluralidad de destinatarios determinados o determinables, siempre y cuando unas u otras merezcan tan solo la consideración de acto administrativo, por |

| | |
|---|---|
| asmoa izan edota edukia administrazio-egintza orokor horietan zeharo zehaztuta dakarten beste betearazpen-egintza batzuk eragiten dituztenak. | cuanto no teniendo vocación de permanencia se agoten con una sola aplicación, incluso en el supuesto de que pretendan su aplicación a una pluralidad de casos o aunque den lugar a otros actos de ejecución cuyo contenido esté completamente predeterminado por aquellos actos administrativos. |
| 3.- Halaber, lege hau aplikagarri duten arau-xedapen orokortzat ez dira joko, nahiz eta organo berek emanak izan eta arau-xedapen orokorren forma berbera hartu, eduki preskriptiboa ez dutenak edota nahitaezko mandatuak ezartzen ez dituztenak, hau da, programazioari buruzko adierazpenak egitera mugatzen direnak, edota lotesleak ez diren edo Administrazioak, dagokion diskrezionalitatearen barruan, balioesteko eta haztatzeko baino ez diren irizpide edo jarduketa-printzipioak ezartzera mugatzen direnak. | 3.- Tampoco tienen consideración de disposiciones normativas de carácter general a las que deba de aplicarse esta Ley, aunque emanen de los mismos órganos y revistan la misma forma que las disposiciones normativas de carácter general, aquéllas que no contengan normas prescriptivas o que no impongan mandatos obligatorios, limitándose a hacer declaraciones programáticas o a establecer criterios o principios de actuación no vinculantes o destinados a ser mero objeto de valoración y ponderación por la Administración dentro de la discrecionalidad que le es propia. |
| 4.- Lege honetan ezarritako prozeduratik kanpo gelditzen dira xedapen orokorren interpretazioa argitzeko edo aplikazioa errazteko ematen diren zerbitzu- eta jarraibide-aginduak. Nolanahi ere, xedapenak proposatu edo bere gain hartzen dituen saileko aholkulariek horiei buruzko txosten juridikoa egingo dute. | 4.- Quedan excluidas del procedimiento dispuesto en esta Ley las instrucciones u órdenes de servicio que se dicten a fin de aclarar la interpretación o facilitar la aplicación de disposiciones de carácter general, si bien serán objeto del informe jurídico emitido por la asesoría del departamento correspondiente que las proponga o adopte. |
| 5.- Kide anitzeko organoek beren barne-jardunbidea arautzeko onartutako erregelamenduen gainean ere, txosten juridikoa egingo du organoa atxikita duen sailak. | 5.- Los reglamentos que aprueben los órganos colegiados para regular su funcionamiento interno serán objeto asimismo del informe jurídico del departamento de adscripción. |
| 6.- Xedapen orokorrek arau osagarriak behar badituzte edo garatzeko beste xedapen batzuetara jotzen badute, azken horiek izaera arauemailea izango dute, batez ere zurian igortzen badituzte edo arau-trinkotasun gutxikoak badira. | 6.- Las disposiciones de carácter general que requieran de complementos normativos o se remitan a otras disposiciones para su desarrollo supondrán el carácter normativo de estas últimas, especialmente en la medida en que se trate de remisiones en blanco o con escasa densidad normativa. |
| 7.- Tresna teknikoak onartzeko baino ez diren xedapen orokorrak arau izaera izaten jarraituko dute, baldin eta tresna tekniko horiek arau horretan edo beste xedapen orokor batean jasotako kontzeptu juridiko zehaztugabeak ordezkatzeko badira edo edukia ematen badiote; izan ere, xedapen | 7.- Las disposiciones de carácter general que se limiten a aprobar instrumentos técnicos no dejarán de tener carácter de norma en la medida en que dichos instrumentos técnicos vengan a suplir o a dar contenido a conceptos |

| | |
|---|---|
| haien garapenerako arau-osagarri beharrezkoak dira. | jurídicos indeterminados que puedan estar contenidos en la misma o en otra disposición de carácter general, constituyendo un desarrollo o complemento normativo necesario de aquellas. |
| **4. artikulua - Presa** | **Artículo 4.- Urgencia.** |
| 1. Behar bezala egiaztatutako presazko arrazoiak direla-eta ezin bada bete xedapen orokorraren gaia arautzen duten arauek aurreikusitako prozedura-izapideren bat, badago, arrazoiak emanez, izapide horiek alde batera uztea, salbu eta lege-mailako arauek edo lege-indarra dutenek ez badituzte izapide horiek nahitaez eskatzen. Era berean, presa-deklarazio hori ematen bada, txostenak edo alegazioak egiteko Lege honetan aurreikusitako epeak murriztu ahal izango dira beharrezkoa bada, baina betiere administrazio-prozedura erkidearen oinarrizko legeek aurreikusitako gutxieneko epeak baino txikiagoak ez badira.<br>2. Presaren arrazoiak ematen badira, egitateak eta zuzenbideko oinarriak labur adieraziz, justifikatuta egongo da eskubide subjektiboak edo interes legitimoak mugatzeko aukera, lehenagoko jarduketetan erabilitako edo organo aholku-emaileek emandako irizpenetatik behin-behinean aldentzea, indarra galdu ez duten aurretik egindako izapideak ez errepikatzea edota ofizioz hasita dauden izapideetan atzera egitea.<br>3. Xedapen orokorrak egiteko prozedura presaz izapidetzeko arrazoiak badaudela joko da beharrezkoa bada araua indarrean sartzea epe jakin batean, hain zuzen zuzentarauen transposiziorako eskatutako epean edo Estatuko oinarrizko legedira egokitzeko, edo arau jakin bat Konstituzioaren kontrako deklaratzako edo baliogabetzeko epaileen erabakiak egokitzeko. Nolanahi ere, zirkunstantzia hori berariaz adierazi beharko da prozeduran zehar dagokion memoria edo hasteko edo sustatzeko aginduaren bitartez. | 1. Cuando por razones de urgencia debidamente acreditadas no sea posible cumplimentar alguno de los trámites procedimentales previstos en las normas reguladoras de las materias objeto de la disposición general, se podrá prescindir, motivadamente, de los mismos, salvo que vengan exigidos como preceptivos por normas con rango o fuerza de ley. Así mismo, esta misma declaración de urgencia habilitará a reducir los plazos de emisión de informes o alegaciones previstos en esta Ley en la medida en que resulte necesario, siempre que ello no implique un término inferior al mínimo previsto por la legislación básica de procedimiento administrativo común.<br>2. La motivación de dicha urgencia, con sucinta referencia de hechos y fundamentos de derecho, justificará en todo caso la posible limitación de derechos subjetivos o intereses legítimos, la eventual separación del criterio seguido en actuaciones precedentes o del dictamen de órganos consultivos, la no repetición de trámites ya efectuados y que no hayan perdido vigencia o el desistimiento en relación a trámites ya iniciados de oficio.<br>3. Podrá considerarse motivada la tramitación urgente del procedimiento de elaboración cuando ello fuere necesario para que la norma entre en vigor en el plazo exigido para la transposición de directivas o para la adaptación a la legislación básica estatal o a decisiones judiciales que anulen o declaren inconstitucional una determinada norma, sin perjuicio de la obligación de que esta circunstancia sea expresamente exteriorizada por medio de la memoria u orden de inicio o de impulso correspondiente |

| | |
|---|---|
| | en el curso del procedimiento. |
| **5. artikulua.- Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna erregelamenduak egiteko prozeduran.** | **Artículo 5.- Nulidad y anulabilidad en el procedimiento de elaboración de reglamentos.** |
| 1. Legea baino beheragoko erregelamendu-xedapenak erabat deusezak izango dira, legezko prozedura erabat baztertuta eman direlako, bakarrik xedapen horiek egiteko prozeduran lege honetan ezinbestekotzat jo diren eta berariaz eskatzen diren izapideak ez badira egin, eta zehazki: | 1. Sólo serán nulas de pleno derecho por prescindir total y absolutamente del procedimiento legalmente establecido aquellas disposiciones reglamentarias de rango inferior a la Ley en cuyo procedimiento de elaboración concurra la ausencia completa de los trámites que vengan expresamente exigidos y definidos con el carácter de esenciales en la presente Ley, y en particular, cuando: |
| a) aurreikusitako izapideetako edozein alde batera utzita egin bada presako prozedura, arrazoirik ez dagoenean presako prozedurarako. | a) se haya seguido el procedimiento de urgencia prescindiendo de cualquiera de los trámites previstos, sin que exista motivación alguna de la urgencia, |
| b) onartzeko unean ezinbestekotzat jotzen diren nahitaezko txostenik ez badago. | b) se carezca de los informes preceptivos de carácter esencial en el momento de su aprobación, |
| c) kontsultei dagokienez, lege honetan aurreikusitakoa betetzen ez bada, baldin eta xedapenak eragina badu, berariaz eta zuzenean, beste administrazio publiko baten eskumenetan. | c) no se cumplan las previsiones de esta Ley en cuanto a las consultas, cuando la disposicion afecte expresa y directamente a competencias de otra Administración pública, |
| d) lege honek entzunaldiari, jendaurrean erakusteari eta negoziazio kolektiboari buruz aurreikusitakoak betetzen ez badira. | d) se incumplan las previsiones de esta Ley relativas a la exigencia de audiencia, exposición pública y negociación colectiva, |
| e) gaiaren ondoriozko prozedura bereziei aplikagarriak zaizkien lege-aurreikuspenak, deuseztasun-mota hori berariaz aurreikusten dutenak, betetzen ez badira. | e) se incumplan las previsiones legales aplicables a procedimientos especiales por razón de la materia y que expresamente prevean dicho tipo de nulidad. |
| 2. Legea baino beheragoko erregelamendu-xedapenak, xedapenak egiteko prozedurari dagokion arrazoiengatik izango dira deusezgarriak baldin eta haiek egiteko prozeduran Lege honetan aurreikusitako bestelako edozein arau-hauste egin bada, eta arau-hauste horiek ez badira behar bezala zuzendu edota haien eragina baliozkotu xedapena argitaratu baino lehen. Ildo horretatik, aplikagarriak izango dira egintzak bihurtzeko, mantentzeko edo baliozkotzeko erregela guztiak eta administrazio-prozedura erkidearen legediak aurreikusitako egintzen deuseztasuna edo deuseztagarritasuna | 2. Serán anulables por causa relativa al procedimiento de elaboración, las disposiciones reglamentarias de rango inferior a la Ley en cuyo procedimiento de elaboración se incurra en cualesquiera otras infracciones de lo previsto en esta Ley, cuando éstas no hubieran sido debidamente subsanadas o convalidadas sus consecuencias antes de la promulgación de la disposición. Serán de aplicación, en tal sentido, todas las reglas de conversión, conservación o convalidación de actos, así como los demás |

| | |
|---|---|
| zabaltzeko gainerako mugak ere bai. | límites a la extensión de la nulidad o anulabilidad de los actos previstos en la legislación básica de procedimiento administrativo común. |
| 3. Bereziki, aurreko apartatuan aurreikusitakoaren arabera, xedapen baten baliozkotasuna eta efikazia eragindakotzat jotzen bada izapidetze elebidunari buruz lege honetan aurreikusitakoa urratu delako, izapidetze elebidunaren xede izan ez den hizkuntzan idatzitako testuaren zatiari mugatuko zaio eragina eta Administrazioa behartuta egongo da baliogabetutako zatiaren ordezko testua presaz eta modu egokian izapidetzera. Nolanahi ere, ordezko testuak erabat errespetatu beharko du bi testu ofizialen arteko baliokidetasun linguistikoaren printzipioa indarrean jarraitzen duen bertsio linguistikoarekiko. | 3. Particularmente, de declararse afectada conforme a lo previsto en el apartado anterior la validez y eficacia de una disposición por infracción de lo previsto en esta Ley sobre la tramitación bilingüe, se limitará la afección a aquella parte del texto escrita en el idioma que no hubiera sido objeto de tal tramitación bilingüe, obligando a la Administración a tramitar de forma urgente y correcta un texto alternativo que sustituya a la parte anulada y que, en todo caso, habrá de respetar perfectamente el principio de equivalencia lingüistica de ambos textos oficiales con respecto a la versión lingüística que siga en vigor. |
| 4. Lege honetan aipatutako txostenak eta irizpenak bakarrik izango dira lotesleak Legeak, berariaz eta zehazki, halakotzat jotzen baditu. Halakoetan, txostenean edo irizpenean zehaztutako irizpidea urratzeak Legeak berariaz aurreikusitako ondorioak ekarriko ditu | 4. Los informes y dictámentes a los que se refiere esta Ley únicamente serán vinculantes cuando dicho carácter les sea expresa y específicamente atribuido por Ley. En tales casos, la transgresión del criterio determinado en el informe o dictámen producirá los efectos que expresamente se prevean en la Ley. |
| **II kapitulua.- Prozedura.** | **Capítulo II.- Procedimiento.** |
| **Lehenengo atala. -Prestaketa.** | **Sección primera.- Preparación.** |
| **6. artikulua.– Arau-plangintza.** | **Artículo 6.- Planificación normativa.** |
| 1.- Gobernuak urtero onartuko du Araugintza Plan bat, eta bertan bilduko dira urte horretan Gobernu Kontseilura, hark onartu ditzan, igorriko diren legegintza- edo erregelamendu-ekimenak. | 1.- El Gobierno aprobará anualmente un Plan Normativo que contendrá las iniciativas legislativas o reglamentarias que vayan a ser elevadas para su aprobación en el Consejo de Gobierno en el año en curso. |
| 2.- Eusko Jaurlaritzaren Urteko Araugintza Plana urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan argitaratuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoan, beharrezkoa den informazioa eta parte-hartzea bermatze aldera. | 2.- El Plan Anual Normativo del Gobierno Vasco se publicará en el plazo de los tres primeros meses de cada año en la Sede Electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a efectos de garantizar la información y participación necesarias. |
| 3.- Urteko Araugintza Planean azalduko da, | 3.- El Plan Anual Normativo identificará, con |

| | |
|---|---|
| ezarritako irizpideen arabera, zein arauk behar duten haien aplikazioaren emaitzei buruzko ebaluazioa, batez ere erreparatuz Administrazioari edo hartzaileei dakarkieten kostuan eta azken horiei ezarritako administrazio-zametan.<br>4.- Xedapen orokorrak egiteko prozedura abiarazi behar bada, eta dena delako Urteko Araugintza Planean aldez aurretik sartu gabe dagoen xedapen bat bada, inguruabar hori justifikatu egin beharko da dagozkion memorietan, baina ez da, hargatik, baliogabetuko.<br>5.- Administrazio Orokorreko sailek, Urteko Araugintza Plan berri bat onartu aurretik, bakoitzak bere araugintza-plangintzaren gauzatze-memoria bat landu eta jakinaraziko dio Gobernuari. | arreglo a los criterios que se establezcan, las normas que habrán de someterse a un análisis sobre los resultados de su aplicación, atendiendo fundamentalmente al coste que suponen para la Administración o los destinatarios, y a las cargas administrativas impuestas a estos últimos.<br>4.- Aquellas disposiciones de carácter general cuyos procedimientos de elaboración deban iniciarse sin haberse cumplimentado previamente su inclusión en el correspondiente Plan Anual Normativo, deberán justificar tal circunstancia en sus correspondientes memorias, sin que ello suponga efecto invalidante alguno.<br>5.- Los departamentos de la Administración General elaborarán y comunicarán al Gobierno antes de la aprobación de un nuevo Plan Anual Normativo una memoria de la ejecución de su respectiva planificación normativa. |
| **7 artikulua.- Gogoeta- eta prestaketa-lanak**<br><br>Xedapen orokorrak egiteko prozedura hasteko erabakia hartu aurretik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailek aurrelanak egin ahal izango dituzte gogoetarako eta prestaketarako; horien artean, batik bat, dauden politika- eta arau-multzoen emaitzen eta eragin metatuen ebaluazioa, eta kontuan har daitezkeen arau-aukeren eraginaren aurretiazko ebaluazioak. Horietan bideratuko dira xedapenaren proiektua egin aurretik legeak eskatzen dituen kontsulta publikoak. | **Artículo 7.- Labores de reflexión y preparación.**<br><br>Con anterioridad a la decisión de iniciar el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general, los departamentos de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi podrán llevar a cabo labores preliminares de reflexión y preparación, entre las que se incluirán, en particular, las evaluaciones de resultados e impactos acumulados del conjunto de las políticas y normas existentes, y las evaluaciones previas de impacto de las alternativas normativas que pueden barajarse, en el seno de las cuales se sustanciarán las consultas públicas que sean exigidas por la ley de forma previa a la elaboración del proyecto de disposición. |
| **8. artikulua.– Araugintza-ebaluazioa eta indarrean dagoen araudia erregulazio onaren printzipioetara egokitzea.**<br><br>1.- Euskal Autonomia Erkidegoko | **Artículo 8.- Evaluación normativa y adaptación de la normativa vigente a los principios de buena regulación.**<br><br>1.- La Administración General de la |

| | |
|---|---|
| Administrazio Orokorrak aldiro berrikusiko ditu indarrean dauden araudiak, erregulazio onaren printzipioetara egokitzeko, indarrean dauden arauek zenbateraino lortu dituzten aurreikusitako helburuak egiaztatzeko eta arau horietan ezarritako kostea eta kargak justifikatuta eta behar bezala zenbatuta zeuden egiaztatzeko.<br>2.- Ebaluazioaren emaitza txosten batean jaso eta argitaratuko da. Euskal Autonomia Erkidegoko ebaluazio publikoaren araudiak zehaztuko du ebaluazio hori egingo duen organoa, xehetasuna eta aldizkakotasuna.<br>3.- Administrazio Orokorreko sailek erregulazio onaren printzipioen aplikazioa sustatuko dute eta arauak egitean analisi ekonomikoa bultzatzen lagunduko dute, batik bat, jarduera ekonomikoari murrizketa zentzugabeak edo neurrigabeak sartzea saihesteko. | Comunidad Autónoma revisará periódicamente su normativa vigente para adaptarla a los principios de buena regulación y para comprobar la medida en que las normas en vigor han conseguido los objetivos previstos y si estaba justificado y correctamente cuantificado el coste y las cargas impuestas en ellas.<br>2.- El resultado de la evaluación se plasmará en un informe que se hará público, con el detalle, periodicidad y por el órgano que determine la normativa reguladora de la evaluación pública en la Comunidad Autónoma de Euskadi.<br>3.- Los departamentos de la Administración General promoverán la aplicación de los principios de buena regulación y cooperarán para promocionar el análisis económico en la elaboración de las normas y, en particular, para evitar la introducción de restricciones injustificadas o desproporcionadas a la actividad económica. |
| **9. artikulua.- Aldez aurretiko kontsulta herritarrei.** | **Artículo 9.- Consulta previa a la ciudadanía.** |
| 1.- Testu juridiko arauemaileen proposamenak idatzi baino lehen, kontsulta publikoaren bidez bilduko da etorkizuneko arauak izan dezakeen eraginari buruz gizarteak duen iritzia, hau da, subjektuen eta ordezkaritza-maila handiena duten erakundeen iritzia.<br>2.- Aldez aurretiko kontsulta kapitulu honetan arautako prestaketa-fasean kokatutzat ematen da. Izan ere, herritarrekiko interakzio izapidea da, 15 egunez egingo da eta testu juridiko arauemaile jakin bat onartu baino lehen.<br>3.- Aldez aurretiko kontsultaren izapidea xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen zuzendaritza-zentro edo -organoak bete ahal izango du iragarkia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan jarrita. Herritarrei gonbidapena egingo zaie iragarritako informazioari buruzko iritzia | 1.- Se recabará en consulta pública con un carácter previo a la redacción de las propuestas de textos jurídicos normativos, la opinión en la sociedad de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectadas por una futura norma.<br>2.- La consulta previa se considera integrada en la fase de Preparación que regula el presente Capítulo, teniendo en cuenta que se trata de un trámite de interacción con la ciudadanía que se realizará durante un plazo de 15 días y con un carácter previo a la aprobación de un determinado texto jurídico normativo.<br>3.- La cumplimentación del trámite de consulta previa podrá realizarla el órgano o centro directivo promotor de la tramitación de la disposición de carácter general mediante anuncio en el Tablón de Anuncios de la Sede Electrónica de la Administración |

| | |
|---|---|
| eman dezaten, alderdi hauekin lotuta: araua onestearen premia eta egokitasuna, arauaren xedeak, ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.<br>4.- Testu juridiko arauemaile bat aldez aurretik onetsi ondoren, xedapen orokorrak egiteko prozedurako instrukzio-faseko entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak ere artikulu honetan aurreikusitako herritarren parte-hartzearen eskakizuna bete dezake. Memorietan jasota utzi beharko da, hala bada. | Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, invitando expresamente a la ciudadanía para que pueda pronunciarse acerca de la información, que se extenderá sobre la necesidad y oportunidad de aprobar la norma, sus objetivos, los problemas que se pretenden solucionar y las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.<br>4.- Una vez aprobado con carácter previo un texto jurídico normativo, el trámite de audiencia e información públicas en la fase de instrucción del procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general puede satisfacer también, dejando constancia de ello en las memorias, la exigencia de participación ciudadana que contempla el presente artículo. |
| **Bigarren atala. -Hasiera.** | **Sección segunda.- Iniciación.** |
| **10. artikulua. Organo eskuduna.** | **Artículo 10.- Órgano competente** |
| 1.- Xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da. Legeak hala agintzen duenean, edo xedapen orokor horien gaiaren gainean bi sailburuk edo gehiagok eskumen zuzena dutenean, agindua guztiek batera eman beharko dute.<br>2.- Baldin eta, xedapen orokorrak egiteko prozedura hasi eta gero, premia ikusten bada beste sail batzuek ere parte har dezaten, egitekoak diren xedapen horiek sail horien eskumeneko gaietan eragina izan dezaketelako, sail horiek ere prozeduran parte hartuko dute, eta, ahal den neurrian, une horretara arte egindako jarduketak mantendu egingo dira. | 1.- El procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general se iniciará por orden del Consejero o Consejera titular del departamento competente por razón de la materia sobre la que versen. Cuando así se establezca mediante ley, o cuando se trate de materias en las que disponen de atribución competencial directa dos o más Consejeros o Consejeras, la orden será conjunta.<br>**2.-** Si en el transcurso del procedimiento de elaboración se aprecia la necesidad de participación de otros departamentos, en virtud de la incidencia que pudieran tener en materias de su competencia, éstos solicitarán su incorporación al procedimiento, conservándose, en la medida de lo posible, las actuaciones realizadas hasta ese momento. |
| **11. artikulua.- Prozedura hasteko agindua.** | **Artículo 11.- Orden de inicio.** |
| 1.- Prozedura hasteko aginduan arauaren xedea eta helburua aipatuko dira labur-labur; | 1.- La orden de inicio expresará sucintamente el objeto y finalidad de la norma, prestando especial atención a la oportunidad de la |

| | |
|---|---|
| arreta berezia eskainiko zaio proposamenaren egokitasunari eta arautzeko aztertu diren bestelako irtenbideei eta arau berriaren premia justifikatuko da ezer ez erregulatzearen aukeraren aurrean. Horrez gain, Lege honen beste artikulu batzuk aipagai dituzten edukiez gain, alderdi hauen guztien gaineko irizpen bat ere izango da:<br>a) Arauaren bideragarritasun juridiko eta materialari buruzko balioespena, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Europar Batasunean indarrean den Zuzenbidea kontuan hartuta, eta proposatutako araua eskumenak banatzeko ordenara egokitzeari buruzko azterketa, hau da, Estatuarekiko eta lurralde historikoetako foru-organoekiko zein toki-entitateekiko ordenara.<br>b) Arauak antolamendu juridikoan izango dituen ondorioen aurreikuspena, araua indarrean sartuz gero, gai beraren gainean indarrean dauden beste arauen artean, berariaz edo zeharka, behin-behinean aldatuko direnak adierazita.<br>c) Proiektatutako arauari edo aurreko puntuan adierazitakoaren arabera eragindako arauei buruz egindako ebaluazioak (inpaktuari, emaitzei edo bestelakoei buruzkoak) bilduko dituen dosierra.<br>d) Arauak ukituko dituen administrazio publikoen aurrekontuetan izango duen eraginari buruzko hurbilketa, dena delako gai horretan nahiz, kasuan kasu, dagokion jarduera-sektorean izango duena.<br>e) Gaia eta proposatuko den arauketaren edukia dela-eta bidezko iritzitako izapide eta txostenen zerrenda, gaiaren berezitasunagatik edo lortu nahi diren xedeengatik nahitaezkoa ez den izapide bakoitza sartzea zergatik den eraginkorra, egokia eta beharrezkoa adierazita. Horrez gain, zehaztu egingo da, hala badagokio, xedapenak Europar Batasunaren izapideren bat igaro behar duen edo ez.<br>f) Xedapenak uki ditzakeen subjektuen eta ordezkaritza-maila handiena duten erakundeen identifikazioa, edota, hala badagokio, entzunaldiaren eta jendaurreko | propuesta y alternativas de regulación estudiadas, incluyendo una justificación de la necesidad de la nueva norma frente a la alternativa de no aprobar ninguna regulación y, junto con aquellos otros contenidos a los que se refieran otros artículos de esta Ley, contendrá los siguientes:<br>a) Una estimación sobre su viabilidad jurídica y material, con referencia al Derecho vigente en Euskadi y el de la Unión Europea, incluido un análisis sobre la adecuación de la norma propuesta al orden de distribución de competencias para con el Estado y para con los órganos forales de los Territorios Históricos y las Entidades Locales.<br>b) Una previsión de sus repercusiones en el ordenamiento jurídico, con indicación de las normas vigentes sobre el mismo objeto que eventualmente vayan a resultar modificadas de forma explícita o implícita como consecuencia de la entrada en vigor de la norma.<br>c) Un dosier adjunto que contenga las evaluaciones de impacto, de resultado o de otro tipo de las que hayan sido objeto la norma proyectada o las disposiciones afectadas por ella conforme al punto anterior.<br>d) Una aproximación sobre la posible incidencia en los presupuestos de las Administraciones públicas afectadas, en la materia concernida y, en su caso, en el sector de actividad de que se trate.<br>e) Una relación de los trámites e informes que se estiman procedentes en razón de la materia y el contenido de la regulación propuesta, indicando los motivos por los que cada trámite no preceptivo resulta eficaz, proporcionado y necesario atendiendo a la singularidad de la materia o a los fines perseguidos; también se especificará, en su caso, si la disposición ha de ser objeto de algún trámite ante la Unión Europea.<br>f) La identificación preliminar de los sujetos y las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la disposición o, en su caso, la justificación de la omisión de los trámites de audiencia y exposición |

| | |
|---|---|
| erakustaldiaren izapideak ez-egitearen justifikazioa.<br>g) Testu artikulatuaren itzulpenerako edo idazketa elebidunerako teknika zehaztea.<br>h) Instrukzioa egingo duen administrazio-organoa izendatzea.<br>i) Urteko Araugintza Planean sartuta ez dagoen arau-proposamena bada, justifikatu egin beharko da zergatik den beharrezkoa hura izapidetzea.<br>2.- Prozedura hasteko agindua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuko da. Behin agindua argitaratuta, sail bakoitzak automatikoki izango du horren berri, ekimenaren egokitasunari buruzko oharrak egin ahal ditzaten, hala nahi izanez gero.<br>3.- Eusko Jaurlaritzak, beharrezko diren betekizun eta izapideak hobeto betetzearren, xedapen orokorrak egiteko prozeduraren galdetegiak edo inprimakiak onartu ahal izango ditu. | pública.<br>g) La determinación de la técnica que se seguirá para la traducción o redacción bilingüe del texto articulado.<br>h) La designación del órgano administrativo al que se encomienda la instrucción.<br>i) Cuando se trate de una propuesta normativa que no figure en el Plan Anual Normativo Anual será necesario justificar la oportunidad de su tramitación.<br>2.– La orden de inicio será objeto de publicación en el Tablón de Anuncios de la Sede Electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Dicha publicación supondrá la comunicación automática al conjunto de departamentos, a fin de que, en su caso, puedan formular observaciones respecto al acierto y oportunidad de la iniciativa.<br>3.– A fin de facilitar un mejor cumplimiento de los requisitos y trámites precisos, el Gobierno Vasco podrá aprobar cuestionarios o formularios de elaboración de las disposiciones de carácter general. |
| **Hirugarren atala. - Instrukzioa.** | **Sección tercera.- Instrucción.** |
| **12. artikulua.- Xedapen orokorrak idazteko arauak eta irizpideak.** | **Artículo 12.- Reglas y criterios de elaboración de la redacción.** |
| 1.- Xedapen orokorrak idazterakoan, prozedura hasteko aginduaren edukiari begiratuko zaio, aintzat hartuta, batetik, lortu nahi diren xedeei ondoen egokituko zaizkien arauketa-aukerak -betiere, premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia printzipioekin bat etorrita-, eta, bestetik, egin nahi den arauketaren zuzentasuna eta legezkotasuna bermatzearren, herritarren kontsultaz gain, komenigarri iritzitako kontsultek izandako emaitzak.<br>2.- Testu juridiko arauemaileetan, erregelamendu- edo lege-proiektua justifikatzen duten zioak eta oinarriak behar bezala azalduko dira.<br>3.- Xedapen orokorra idazteko bidean, | 1.- La redacción de las disposiciones de carácter general se realizará atendiendo al contenido de la orden de inicio, teniendo en cuenta las opciones de regulación que mejor se acomoden a los objetivos perseguidos, de acuerdo con los principios de necesidad, eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia, y eficiencia, y al resultado de las consultas previas, además de la ciudadana, que se estimen convenientes para garantizar el acierto y legalidad de la regulación prevista.<br>2.- Los textos jurídicos normativos deberán insertar una exposición adecuada de los motivos y fundamentos que justifican la determinación del correspondiente proyecto de ley o de reglamento. |

| | |
|---|---|
| beharrezko diren azterlan eta txostenak egingo dira, eta, bereziki, arauen gauzagarritasunarekin eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren printzipioak betetzearekin lotutako kostuaren gainekoak. | 3.- En el curso de la elaboración de la redacción se efectuarán los estudios e informes que sean precisos y, en particular, los relativos a la factibilidad de las normas y a su coste en relación con el cumplimiento de los principios de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera. |
| 4.- Xedapen orokorra idazteko une hau egokitzat jotzen da, Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak xedatutakoarekin bat etorrita, araudi-proposamenak emakumeek eta gizonek kolektibo gisa bizi duten egoeran izan lezakeen eragina ebaluatzeko, bai eta arauan proiektatutako jarduerak emakumeen eta gizonen desberdintasunak kentzeko eta haien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean ondorio onuragarriak edo kaltegarriak izan ditzakeen aztertzeko ere. Arauaren izaera eta izango duen edukiaren arabera, genero-eraginaren ebaluazioa bidezkoa den ala ez balidatu beharko da idazketa amaitu aurretik, nahiz eta gero ere egin ahal izango den baldin eta instrukzio-faseko izapideetan baztertuta geratzen ez bada. | 4.- Se fija este momento de elaboración de la redacción como el más idóneo para que, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, de Igualdad de Mujeres y Hombres del País Vasco, se proceda a evaluar el impacto potencial de la propuesta en la situación de las mujeres y en los hombres como colectivo, analizando para ello si la actividad proyectada en la norma puede tener repercusiones positivas o adversas en el objetivo global de eliminar las desigualdades entre mujeres y hombres y promover su igualdad. Antes de concluir la redacción debe validarse la pertinencia o no de la evaluación del impacto de género en función de la naturaleza y previsible contenido de la norma, sin perjuicio de su desarrollo en caso de no exclusión durante los trámites de la fase de instrucción. |
| 5.- Testua bi hizkuntza ofizialetan idatzi beharko da, edo gaztelaniatik euskarara edo euskaratik gaztelaniara itzuli, dagokion araudian aurreikusitako tekniketako edozein erabilita. Hori guztia, aldez aurretik onartzeko izapidea egin baino lehen eta instrukzio-fasean izapidetu gero. | 5.- El texto elaborado debe ser redactado de forma bilingüe, en los dos idiomas oficiales, o bien traducido de castellano a euskera o viceversa, por medio de cualquiera de las técnicas previstas en la normativa correspondiente, antes de someterse a su aprobación previa y ulterior tramitación en la fase de instrucción. |
| 6.- Ahalik eta hedapen eta jarraipen handiena izan dezaten, lege honen eranskin gisa argitaratuko dira 1993ko martxoaren 23ko Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bidez onetsitako xedapen orokorrak egiteko araugintza-teknikaren jarraibideak (Apirilaren 6ko Agindua, apirilaren 19ko EHAA, 71. zenbakia), betiere kontuan hartuta Eusko Jaurlaritzak, egoki iritziz gero, jarraibide horiek eguneratu ahal izango dituela galdetegien edo inprimakien bitartez. | 6.- Al objeto de promover su mayor divulgación y seguimiento, en Anexo a la presente Ley se publicarán las directrices de técnica normativa para la elaboración de disposiciones de carácter general aprobadas por Acuerdo de Consejo de Gobierno de 23 de marzo de 1993 (Orden de 6 de abril, BOPV nº 71, de 19 de abril), sin perjuicio de su actualización a través de los cuestionarios o formularios que apruebe cuando lo considere oportuno el Gobierno Vasco. |
| **13. artikulua - Aldez aurreko onarpena** | **Artículo 13.- Aprobación previa y** |

| | |
|---|---|
| **eta izapidetze-espedientea.**<br><br>1. Xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak aldez aurreko onarpena eman beharko dio dena delako testu artikulatuari, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik.<br>2. Aldez aurreko onarpen-aginduari, onartutako testu elebiduna eta artikulu honetan adierazitako gainerako dokumentuak erantsiko zaizkio. Horrela, osatuta geratuko da ondoren bete beharreko izapideen xede izango den espedientea eta izapideak bideratzeko agindua emango da.<br>3. Espedientearen instrukzioa egiteko eskumena duen zuzendaritza-zentroak arau-eraginaren azterketari buruzko memoria egingo du nahitaez. Memoria horretan bildu edo berretsiko da hasiera emateko aginduaren inguruan proposamena egiten duen organoaren iritziz azpimarragarria izan litekeen edozein alderdi, eta nolanahi ere, honako hauek:<br>a) Proposamenaren egokitasuna eta arautzeko aztertu diren bestelako irtenbideak. Arau berriaren premia justifikatuko da ezer ez arautzearen aukeraren aurrean.<br>b) Eduki eta azterketa juridikoa, Zuzenbide erkatua eta Europar Batasuneko zuzenbidea aipatuta, eta araua indarrean sartzen denean indargabetuko diren arauen zerrenda zehatza izango duena.<br>c) Proposatutako araua eskumenak banatzeko ordenara egokitzeari buruzko azterketa.<br>d) Ekonomian eta aurrekontuan duen eragina. Araua aplikatzeak ukitutako sektore, eragile eta taldeetan izango dituen ondorioak ebaluatuko ditu, baita lehiarengan eta lehiakortasunarengan duen eragina ere. Gai horiei buruz unean-unean indarrean dagoen legeekin nola txertatzen den ere ebaluatuko da.<br>e) Halaber, proposamenak izan ditzakeen karga administratiboak identifikatuko dira, hura betetzeak Administrazioari eta kargei | **expediente de tramitación.**<br><br>1. Una vez redactados los proyectos de disposición de carácter general, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan, el texto articulado correspondiente deberá contar con la aprobación previa acordada por el órgano que haya dictado la orden de inicio.<br>2. La orden de aprobación previa adjuntará el texto bilingüe así aprobado y el resto de documentos referidos en este artículo que conformarán el expediente con el que se seguirán los trámites subsiguientes, ordenando la evacuación inmediata de los mismos.<br>3. El centro directivo competente para la instrucción del expediente elaborará con carácter preceptivo una Memoria del análisis de impacto normativo, que deberá contener o reiterar respecto a la orden de inicio cualquier extremo que pudiera ser relevante a criterio del órgano proponente y en todo caso los siguientes apartados:<br>a) Oportunidad de la propuesta y alternativas de regulación estudiadas, lo que deberá incluir una justificación de la necesidad de la nueva norma frente a la alternativa de no aprobar ninguna regulación.<br>b) Contenido y análisis jurídico, con referencia al Derecho comparado y al de la Unión Europea, que incluirá el listado pormenorizado de las normas que quedarán derogadas como consecuencia de la entrada en vigor de la norma.<br>c) Análisis sobre la adecuación de la norma propuesta al orden de distribución de competencias.<br>d) Impacto económico y presupuestario, que evaluará las consecuencias de su aplicación sobre los sectores, colectivos o agentes afectados por la norma, incluido el efecto sobre la competencia y la competitividad y su encaje con la legislación vigente en cada momento sobre estas materias.<br>e) Asimismo, se identificarán las cargas administrativas que conlleva la propuesta, se |

| | |
|---|---|
| aurre egin behar dietenei ekarriko dien kostea zenbatuko da, bereziki aipatuta enpresa txiki eta ertainen gaineko eragina.<br>f) Generoaren arloko eragina. Araua onartzeak ekar ditzakeen emaitzak aztertu eta balioetsiko dira ezberdintasunak ezabatzeko ikuspegitik abiatuta eta gizonen eta emakumeen aukera-berdintasunaren eta tratu berdinaren helburuak lortzeko balio duen kontuan hartuta. Horretarako, abiapuntuko, emaitzen aurreikuspeneko eta eraginaren aurreikuspeneko adierazleak aztertuko dira. Berdintasunaren arloko legeriarekin bat etorriz, berariaz adieraziko da genero-eraginaren txosten bereziaren premiaren beharrarekiko autoebaluazioa.<br>g) Kontsulta publikoaren izapidean jasotako ekarpen nagusien laburpena.<br><br>4. Dagokion sailak egoki iritziz gero, espedientearen edukia eta analisi juridikoa txosten juridiko espezifiko batean jasoko da. Prozedura bideratu duen saileko zerbitzu juridikoak egingo du, Memorian aipatuko da eta bere betebeharra izango da, geroko izapidetze-prozesuari begira, proiektuaren oinarrien defentsa juridikoari eustea, edukia legearekin eta zuzenbidearekin bat datorren aztertzea eta kasuan kasu ezartzen diren araugintza-teknikaren gaineko jarraibideak betetzen diren aztertzea.<br><br>5. Sailak hala iritziz gero, eragin ekonomikoaren arabera, memoria ekonomiko espezifikoa egin ahal izango da. Memorian aipatuko da eta aurretiko onarpena jaso duen testuan izandako aldaketak kontuak hartuta, hasierako aginduan aurreikusitako kosteen balioespeneko balizko zehaztapenak edo desbideratzeak egiaztatuko edo adieraziko ditu, eta, orobat, gastuak eta diru-sarrerak zenbatuta, Administrazio Publikoaren aurrekontuetan izango duen eragina, finantzaketarako iturri eta moduak eta Euskal | cuantificará el coste de su cumplimiento para la Administración y para los obligados a soportarlas con especial referencia al impacto sobre las pequeñas y medianas empresas.<br>f) Impacto por razón de género, que analizará y valorará los resultados que se puedan seguir de la aprobación de la norma desde la perspectiva de la eliminación de desigualdades y de su contribución a la consecución de los objetivos de igualdad de oportunidades y de trato entre mujeres y hombres, a partir de los indicadores de situación de partida, de previsión de resultados y de previsión de impacto. Se incluirá expresamente la autoevaluación respecto a la necesidad o no de un informe específico de impacto de género de conformidad con la legislación en materia de igualdad.<br>g) Un resumen de las principales aportaciones recibidas en el trámite de consulta pública.<br>4. En los casos en que el departamento correspondiente así lo estime conveniente, el contenido y análisis jurídico del expediente podrá sustanciarse mediante un informe jurídico específico, que será aludido en la Memoria y emitido por el servicio jurídico del Departamento que haya instruido el procedimiento y que tendrá como cometido el sostener, de cara su posterior tramitación, la defensa jurídica de las bases del proyecto, la adecuación de su contenido a la Ley y al Derecho y la observancia de las directrices de técnica normativa que, en su caso, se establezcan.<br>5. Cuando el departamento así lo considere, en función de la intensidad del impacto económico, se podrá elaborar también una memoria económica específica, que será igualmente aludida en la Memoria y que confirmará o expresará, a la vista de los cambios producidos en el texto objeto de aprobación previa, las posibles concreciones o desviaciones de la estimación de costes prevista en la orden de inicio, con la cuantificación de los gastos e ingresos y su |

| | |
|---|---|
| Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekonomia- eta araudi-kontrolaren gaineko arauek zehaztutako beste alderdi batzuk. | repercusión en los Presupuestos de la Administración pública, las fuentes y modos de financiación, y cuantos otros aspectos se determinen en la normativa que regule el ejercicio del control económico-normativo en la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi. |
| 6. Aholku Batzorde Juridikoari igorri behar zaizkion lege-edo dekretu-proiektuak egiteko hasierako fasean, xedapenaren testua eta memoria bidaliko dira Eusko Legebiltzarrera, hasteko agindua eman duen organoaren aurretiazko onarpena izan ostean, hala baitago jasota Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean. | 6. En esta fase inicial de elaboración de los proyectos de ley o de decreto que deban ser remitidos a la Comisión Jurídica Asesora, se enviará al Parlamento Vasco el texto de la disposición y su memoria, una vez tenga aquel la aprobación previa del órgano que haya dictado la orden de inicio, de acuerdo con la comunicación que exige la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre Ley de Gobierno. |
| **14. artikulua.- Izapideak kontzentratzea eta haien izapidetze telematikoa bultzatzea.** | **Artículo 14.- Concentración de trámites e impulso de su realización telemática.** |
| 1. Administrazioa sinplifikatzeko printzipioarekin bat etorrita, egintza bakar batean erabakiko dira izaera dela-eta batera bultza daitezkeen eta bata bestearen ondoren bete beharrekoak ez diren izapide guztiak. | 1. De acuerdo con el principio de simplificación administrativa, se producirá la evacuación conjunta y en un solo acto de todos los trámites que, por su naturaleza, admitan un impulso simultáneo y no sea obligado su cumplimiento sucesivo. |
| 2. Zehazki, batera eskatutzat joko dira, epe berean eta bitarteko telematikoz, honako hauek: erregelamendu bidez sartutako edota funtsezkoak ez diren nahitaezko txostenak edo nahitaezkoak ez direnak, organo espezializatuei edota Administrazio Orokorreko sailei egindako kontsultak eta gaiaren arabera prozedura berezietan eskatutako txostenak edo kontsultak, baldin eta prozedura-arau espezifiko horren arabera ez badira berariaz jarraian edo beste une batean betetzekoak. | 2. En particular, se entenderán solicitados simultáneamente, en el mismo plazo y a través de medios telemáticos, todos los informes preceptivos y no preceptivos introducidos por vía reglamentaria o que no tengan un carácter esencial, las consultas a órganos especializados o a los propios departamentos de la Administración general y los informes y consultas exigidos en los procedimientos especiales por razón de la materia y cuya norma procedimental específica no requiera expresamente su cumplimiento sucesivo o en un momento diferente. |
| 3. Izapideak egiteko eginkizuna dutenek egin beharko dituzte izapideak, aurretik eskabidea egin gabe eta soilik espedientea -bere txosten, azterlan eta memoria eta guzti- aintzat hartuta. Izapide guztiak aldi berean egingo dira eta hilabete 1eko epe berean, aurretiaz onartutako xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko | 3. Los trámites se cumplimentarán de oficio por quienes los tengan atribuidos, sin necesidad de su solicitud previa, y a la vista únicamente del expediente con sus informes, estudios y memoria. Se realizarán todos de un modo simultáneo y durante el mismo |

| | |
|---|---|
| Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratu ondoren. Aipatutako epea igarota, ezingo dira funtsezkoak ez diren izapideak bete.<br>4. Xedapen bat egiteko prozeduraren baitan, txostengileak arau bati buruzko txostena egin badu aurretik, hain zuzen arauaren eraginaren memorian ustez baliogabetuta geratuko direnen zerrenda zehatzean dagoen arau bati buruz, txosten berrian identifikatu eta aurreko txosten horretara sartzeko modua adieraziko da, egiaztapena egin ahal izateko. | plazo común de 1 mes, contado a partir de la publicación en la sede electrónica de la Administración general de la Comunidad Autónoma del texto de la disposición que cuente con aprobación previa. Una vez transcurrido el plazo común citado, queda prohibida la cumplimentación de trámites que no sean esenciales.<br>4. Cuando quien emita el correspondiente informe hubiera previamente informado, en el seno del correspondiente procedimiento de elaboración, alguna de las normas relacionadas en la memoria de impacto normativo en el listado pormenorizado de las que previsiblemente quedarán derogadas, el nuevo informe procurará identificar e indicar la forma de acceso a dicho informe previo, a fin de posibilitar el contraste correspondiente. |
| **15. artikulua - Entzunaldia eta informazio publikoa eta negoziazio kolektiboa.**<br><br>1.- Lege honetan aurreikusitako kontsultaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak beti egin beharko dira herritarren eskubide edo interes legitimoei zuzenean ukitzen bazaie, eta, betiere artikulu honetan aurreikusitako salbuespen arrazoiren bat ematen ez bada.<br>2.- Interesdunei zuzenean entzunez egingo da entzunaldia, edo, interesdun horiek biltzen edo ordezkatzen dituzten erakunde eta elkarteei entzunez; erakunde eta elkarte horiek legeak onartutakoak izan behar dute, eta haien helburuek lotura zuzena izan behar dute xedapenaren gaiarekin. Dena den, arrazoitu egin beharko da izapide hori betetzeko aukeretan bata edo bestea hartu izana. Aipatutako erakunde edo elkarte horiek organoen bidez edo txosten edo berariazko kontsulten bidez parte hartzen badute araua egiteko prozesuan, ez da beharrezkoa izango interesdunei zuzenean entzunaldia ematea.<br>3.- Entzunaldia, eta, hala badagokio, informazio publikoa, aurreko artikuluan | **Artículo 15.- Audiencia e información pública y negociación colectiva.**<br><br>1.- Los trámites de consulta previa, audiencia e información pública que contempla esta Ley se deben realizar siempre que se afecte de manera directa a los derechos e intereses legítimos de los ciudadanos y ciudadanas, y no concurra alguna de las causas de excepción previstas en este artículo.<br>2.- La audiencia se realizará directamente o a través de las organizaciones y asociaciones reconocidas por la ley que agrupen o representen a los ciudadanos y ciudadanas afectadas y cuyos fines guarden relación directa con el objeto de la disposición. La opción por una u otra modalidad de cumplimiento del trámite será motivada. No será precisa la audiencia a las personas interesadas cuando las organizaciones y asociaciones mencionadas participen orgánicamente o por medio de informes o consultas específicas en el proceso de elaboración.<br>3.- La audiencia, y, en su caso, la información pública, se efectuará simultáneamente con los demás trámites |

| | |
|---|---|
| aurreikusitako gainerako izapideekin batera egingo da hilabete 1eko epe berean, aurretiaz onartutako xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratu ondoren.<br>4.- Lege honen arabera, kasu batzuetan baino ezingo dira alde batera utzi izapide horiek, hauetan hain zuzen: aurrekontuei eta antolaketari buruzko arauen kasuan, hori justifikatzen duten interes publikoko arazo astunak badaude edo arau-proposamenak jarduera ekonomikoan eragin nabarmenik ez badu, hartzaileei betebehar nabarmenik ezartzen ez badie edo gai baten alderdi partzialak arautzen baditu.<br>5.- Ez dute izapide hori igaro beharko Jaurlaritzaren organoak, karguak eta agintariak arautzen dituzten xedapenek, ez eta Autonomia Erkidegoko Administrazioaren edo haren mendeko edo hari atxikitako erakundeen xedapen organikoek ere, non eta ez duten arautzen herritarrek Administrazioaren eginkizunetan edukiko duten parte-hartzea.<br>6.- Artikulu honetan araututako parte-hartze publikoa gauzatzeko, arauaren hartzaileak izan daitezkeen guztiek aukera izango dute beren iritzia emateko eta horretarako, errespetatu egin beharko dira legerian aurreikusita dauden gardentasun, herritarren parte-hartze eta gobernamendu onaren bermeak.<br>7.- Entzunaldi publikoarekin batera, langileen ordezkariekin negoziatu beharko dira edo kontsulta egin beharko zaie haiei, dagokion legeriak ezarritako gai-eremuen arabera, lan-baldintzen gaineko eta funtzio publikoaren legeriak zehaztutako gai jakin batzuen gaineko arau-egitasmoak, betiere, negoziazio kolektiboan lortutako akordioak ez badituzte oinarri. Espedienteari erantsiko zaizkio betekizun hori betetzeko egin diren bilkuren aktak. | previstos en el artículo anterior, durante el mismo plazo común de 1 mes, contado a partir de la publicación en la sede electrónica de la Administración general de la Comunidad Autónoma del texto de la disposición que cuente con aprobación previa.<br>4.- De acuerdo con la Ley, únicamente se puede prescindir de este tipo de trámites en el caso de normas presupuestarias u organizativas, cuando concurran razones graves de interés público que lo justifiquen o cuando la propuesta normativa no tenga un impacto significativo en la actividad económica, no imponga obligaciones relevantes a los destinatarios o regule aspectos parciales de una materia.<br>5.- En particular quedan exceptuadas de este trámite las disposiciones que regulan los órganos, cargos y autoridades del Gobierno, así como las disposiciones orgánicas de la Administración de la Comunidad Autónoma o de las organizaciones dependientes o adscritas a ella, salvo que se refieran precisamente a la participación de la ciudadanía en las funciones de la Administración.<br>6.- La participación pública regulada en este artículo deberá realizarse de forma tal que los potenciales destinatarios de la norma y quienes realicen aportaciones sobre ella tengan la posibilidad de emitir su opinión formada, para lo cual deberán respetarse las garantías previstas en la legislación de transparencia, participación ciudadana y buen gobierno.<br>7.– Paralelamente a la audiencia pública, se negociarán o consultarán con los representantes de personal, según los ámbitos materiales que establece la legislación correspondiente, los proyectos normativos sobre condiciones de trabajo y los que determine la legislación de función pública, que no tuvieran origen en los acuerdos alcanzados en una negociación previa. Se incorporarán al expediente las actas de las sesiones en que se haya dado cumplimiento a |

| | |
|---|---|
| | esta exigencia. |
| **16. artikulua.- Beste administrazio batzuek parte hartzea edo haiei kontsulta egitea.** | **Artículo 16.- Participación y consulta a otras Administraciones** |
| 1.- Xedapenaren testua aurretik onartzeko hilabeteko epe beraren barruan, xedapen orokorrak egiteko prozeduran parte hartzeko aukera emango zaie egitekoa den arauketak zuzen-zuzenki eragiten dien Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioei.<br>2.- Parte-hartzea mailakatu egingo da eta egitekoa den xedapenak gainerako administrazioen eskumen eta jarduketetan duen eraginaren arabera gauzatuko da. Betiere, egitasmoaren testua helarazi beharko zaie, eta parte-hartzea alegazioak aurkezteko epe bat irekita ere gauzatu ahal izango da, edo txostenak emanez.<br>3.- Kontsulta-organoetan parte hartze hutsak edo gai jakin batean aholku teknikoa emateak ezin du kontsultaren izapidea ordezkatu, non eta horrelako parte-hartzearen funtsa ez den hain zuzen ere bakoitzaren eskumen eta interesak babestea, edo non eta organo horiek esku hartuta ez den parte-hartze hori zinez gauzatzen. | 1.- Dentro del mismo plazo común de 1 mes desde la aprobación previa del texto de la disposición, se dará participación en el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general a las Administraciones de la Comunidad Autónoma que puedan resultar afectadas directamente por la regulación prevista.<br>2.- La participación se graduará y se realizará en función de la incidencia en las competencias o en la actuación de las demás Administraciones. Conllevará, en todo caso, la remisión del texto del proyecto, y podrá consistir en la apertura de un plazo para la formulación de alegaciones o en la emisión de informes.<br>3.- La simple participación en órganos consultivos o de asesoramiento técnico en una determinada materia no sustituye al trámite de consulta, salvo que tal participación tenga como fundamento precisamente la salvaguarda de las competencias e intereses respectivos o se verifique materialmente con ocasión de la intervención de dichos órganos. |
| **17. artikulua - Nahitaezko txosten eta irizpen funtsezkoak.** | **Artículo 17.- Informes y dictámenes preceptivos de carácter esencial.** |
| 1.- Espedientea osatu ondoren aurreko artikuluetan aurreikusitako izapideen arabera, bitarteko elektronikoak erabilita eskatu eta beteko dira funtsezkoak diren nahitaezko txosten eta irizpenak, Lege honek eta hura arautzen duten xedapenek zehaztutako kasuetan, moduan eta epean.<br>2.- Horretarako, xedapenaren testu artikulatu berri bat idatzi ahal izango da, une horretara arte egindako instrukzioko izapideen arabera egoki iritzitako aldaketak bilduko dituena eta aldez aurreko onarpen-agindua osatu zuen testutik bereizi beharko dena. Nolanahi ere, | 1.- Una vez completado el expediente de acuerdo con los trámites previstos en los artículos anteriores, deberán requerirse y cumplimentarse a través de medios electrónicos los trámites específicos de informes y dictámenes preceptivos de carácter esencial, en los supuestos y en la forma y plazo que determina la presente Ley y las disposiciones que los regulan.<br>2.- Para su consecución, podrá redactarse un nuevo texto articulado de la disposición, que incorpore los cambios que se estimen pertinentes a la luz de los trámites de la |

| | |
|---|---|
| aurretik emandako testu juridiko artikulatu guztiak ezingo dira espedientetik ezabatu, gainerako dokumentazioarekin batera jasota geratu beharko baitira espedientean.<br>3. Errekerimendua egiten denetik, nahitaezko txostenak eta irizpenak egiteko gehieneko epe luzaezina egongo da. Dena den, epez kanpo eman eta erantsi ahal izango dira espedientera, baldin eta eskuragarri badaude espedientea onartu behar duen organo eskudunera aurkeztu aurretik. Horrelakorik gertatuz gero, baina, justifikatuta legoke nahitaezko txosten eta irizpen horiek kontuan ez hartzea prozedura bultzatzeko edo xedapen-proiektuaren azken onespenari buruzko ebazpena ematerakoan. | instrucción ya cumplimentados y que deberá distinguirse del texto que integró la orden de aprobación previa, sin que puedan suprimirse del expediente todos los textos jurídicos articulados que se hayan emitido, debiendo constar en el mismo junto con el resto de la documentación.<br>3. Los informes y dictámenes preceptivos tendrán un plazo máximo e improrrogable para su emisión desde la fecha de requerimiento, pudiendo ser emitidos e incorporados al expediente fuera de plazo siempre que estén disponibles antes de la elevacion del expediente al organo competente para su aprobacion, si bien esta circunstancia podrá justificar que los mismos puedan no ser tenidos en cuenta al adoptar la correspondiente resolución de impulso del procedimiento o de aprobación final del proyecto de disposición. |
| **18. artikulua.- Lan Harremanen Kontseiluaren eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen nahitaezko txostenak.**<br><br>Lan Harremanen Kontseiluaren eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen nahitaezko txostenak funtsezkoak dira haiek arautzen dituzten xedapen espezifikoen arabera jarduten badute. Espedientea amaitu eta hurrengo hilabetearen barruan emango dira, funtsezkoak ez diren izapideak betetzeko hilabeteko aldibereko epea bete ondoren. | **Artículo 18.- Informes preceptivos del Consejo de Relaciones Laborales y del Consejo Económico y Social Vasco.**<br><br>Tienen carácter esencial cuando procedan conforme a las disposiciones específicas que los regulan, y se emitirán dentro del mes siguiente a la conclusión del expediente, una vez cumplido el plazo simultáneo de 1 mes para el cumplimiento de los trámites no esenciales, los informes preceptivos del Consejo de Relaciones Laborales y del Consejo Económico y Social Vasco. |
| **19. artikulua.– Tokiko Gobernuen Batzordearen nahitaezko txostena.**<br><br>1.- Udalerrien berezko eskumenak ukitzen dituzten xedapen orokorrak egiteko prozeduretan funtsezkoa da Tokiko Gobernuen Batzordearen nahitaezko txostena, alerta goiztiarreko organo gisa, euskal toki-erakundeen autonomian izan dezakeen eragina ebalua dezan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko | **Artículo 19.- Informe preceptivo de la Comisión de Gobiernos Locales.**<br><br>1.- Tiene carácter esencial cuando procede en procedimientos de elaboración de disposiciones normativas de carácter general que afecten a las competencias propias de los municipios, el informe preceptivo de la Comisión de Gobiernos Locales, como órgano de alerta temprana, para la evaluación del impacto sobre la autonomía de los entes |

| | |
|---|---|
| 2/2016 Legearen 90. eta 91. artikuluetan eta horiekin bat datozenetan aurreikusitakoaren arabera.<br>2.- Txosten hori ez da entzunaldi edo beste administrazio batzuei kontsulta egiteko izapidea; aitzitik, xedapen orokorraren sustatzaileak eskatuko du espedientea amaitu ondoren. Txosten eskabideari espedientea eta izapidea egin ahal izateko beharrezkoa den alderdi ekonomikoei eta eskumenei buruzko dokumentazioa erantsiko zaizkio.<br>3.- Udalei propiotzat esleitutako eskumenetatik eratorritako zerbitzuak, jarduerak edo prestazioak zehaztea eragiten duten xedapen orokorren proiektuek, udalerrien finantza-nahikotasuna ziurtatzeko behar den baliabide-hornidurari buruzko eranskin bat izan beharko dute atxikita, eta horrek ezingo du ekarri, oro har hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoek gastu handiagoa edukitzea, Finantza Publikoen Euskadiko Kontseiluak hala baimendu ezean, xede horretarako bideratutako kontsulta egin ondoren. Bestalde, Eusko Jaurlaritzan edo dagokion foru-aldundi formalean ogasun-arloko eskumena duen sailaren txostena ere aurkeztu beharko da, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 112. artikuluan adierazten denarekin bat etorriz.<br>4.- Txostena egiteko epeak eta hura egiteko modu zehatza Lege horretan aurreikusitakora egokituko dira. Hortaz, espedientea amaitu ondoren, hilabeteko epe osagarri eta luzaezinean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak ezartzen dituen banakako eta aldebiko izapideak egingo dira, kasuan kasu. | locales vascos, de acuerdo con lo previsto en los artículos 90, 91 y concordantes de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.<br>2.- Dicho informe no constituye un trámite de audiencia o de consulta a otras Administraciones, sino que se solicitará por el órgano promotor de la disposición de carácter general en el momento posterior a la conclusión del expediente, acompañado del mismo y de la documentación sobre aspectos económicos y competenciales necesaria para poder perfeccionar el trámite.<br>3.- A dichos efectos, se considerará que los proyectos de disposiciones de carácter general que impliquen una concreción de servicios, actividades o prestaciones derivadas de competencias municipales atribuidas como propias, deberán incorporar un anexo específico donde se recoja la dotación de recursos necesarios para asegurar la suficiencia financiera de los municipios, sin que ello conlleve en su conjunto un mayor gasto para las administraciones públicas vascas en su totalidad, salvo que así lo hubiera autorizado el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, previa consulta evacuada al efecto; asimismo, se deberá incluir un informe del departamento competente en materia de hacienda del Gobierno Vasco o de la diputación foral correspondiente, si procediera, conforme a lo señalado en el artículo 112 de la Ley de Instituciones Locales de Euskadi.<br>4.- Los plazos relativos a la emisión del informe y su operativa específica se ajustarán a lo previsto en la citada Ley, de modo que durante el plazo adicional e improrrogable de 1 mes desde la conclusión del expediente procederán según el caso los trámites individuales y bilaterales que establece la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi. |
| **20. artikulua.– Legezkotasunari buruzko txostena.** | **Artículo 20.- Informe preceptivo de Legalidad.** |

| | |
|---|---|
| Euskadiko Aholku Batzordeak ez badu irizpena eman behar, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiari egitea dagokion legezkotasunari buruzko nahitaezko txostena bitarteko elektronikoak erabilita eskatu eta gauzatuko da, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeari buruzko ekainaren 2ko 7/2016 Legeak aurreikusitakoarekin bat etorrita eta aurreko izapideak egin ondoren.<br><br>**21. artikulua.- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren nahitaezko txostena.**<br><br>Ekonomia- eta arau-kontrola bitarteko elektronikoak erabilita eskatu eta gauzatuko da, dagokion nahitaezko kontrol-txostena emanda, eta, hain justu, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretu bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginean aurreikusitako unean eta moduan.<br><br>**Laugarren atala.- Amaitu eta onartzea.**<br><br>**22. artikulua - Espedientea eta memoria.**<br><br>1.- Amaierako espedientea osatuko duten dokumentuak hauek dira: hasteko agindua, proiektua aldez aurretik onartzeko agindua testua eta guzti, arauaren eraginari buruzko memoria, egindako azterlanak eta kontsultak, eta nahitaezko txostenak eta irizpenak. Azken horiei atxikiko zaizkie, argi identifikatuta, izapidetzean zehar idatzi diren xedapenaren testu artikulatu guztiak, bakoitza zein unetan idatzitakoa den zehaztuta.<br>2.- Orobat, prozedura osoaren memoria labur bat erantsiko zaio espedienteari, eta, hor, hauek guztiak zehaztuko dira: aurrekariak, egindako izapideak, izapideen emaitzak eta, egindako txostenen ohar eta iradokizunei egokitzearren -batez ere nahitaezko | Cuando no proceda la emisión de dictamen por la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, el informe preceptivo de legalidad que corresponde emitir al Servicio Jurídico Central del Gobierno Vasco, se requerirá y materializará a través de medios electrónicos, de conformidad con lo previsto en la Ley 7/2016, de 2 de junio, de Ordenación del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco y una vez finalizados los trámites anteriores.<br><br>**Artículo 21.- Informe preceptivo de la Oficina de Control Económico.**<br><br>El control económico-normativo se requerirá y materializará a través de medios electrónicos, mediante la emisión del correspondiente informe de control preceptivo, que se ejercerá en el momento y en el modo previsto en el texto refundido de la Ley de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por Decreto Legislativo 2/2017, de 19 de octubre.<br><br>**Sección cuarta.- Finalización y aprobación.**<br><br>**Artículo 22.- Expediente y memoria.**<br><br>1.- El expediente final se conformará con la orden de inicio, la orden de aprobación previa con el primer texto integrado del proyecto, la memoria de impacto normativo, los estudios y consultas evacuados, y los informes y dictámenes preceptivos, a los que se acompañarán identificados con claridad cuantos textos articulados de la disposición se hayan redactado durante la tramitación, especificando el momento al que responde cada uno de ellos.<br>2.- Se unirá, asimismo, una memoria sucinta de todo el procedimiento, en la que se reseñarán los antecedentes, los trámites practicados y su resultado y las modificaciones realizadas en el texto del proyecto para adecuarlo a las observaciones |

| | |
|---|---|
| txostenetan egindakoei-, proiektuaren testuan sartutako aldaketak. Behar besteko zehaztasunez arrazoituko da zergatik ez diren onartu txosten horietan egindako oharrak, eta zehatz-mehatz arrazoituko da, orobat, azkenean erabakitako testua nola egokitzen den antolamendu juridikora.<br>3.- Memoria labur horrek aztertu egingo du halaber, ekimena kongruentea den ala ez Euskal Autonomia Erkidegoko nahiz Europar Batasuneko gainerako ordenamendu juridikoarekin, Eusko Jaurlaritzako sailetan egiten ari diren beste batzuekin edo, urteko araugintza-planaren arabera, etorkizunean egingo direnekin, bai eta Eusko Legebiltzarrean izapidetzen ari direnekin ere. Aztertu egingo du, halaber, arau berrian beste arau batzuen indargabetze espresua sartu behar den, bai eta arlo berean dagoeneko badauden beste arau batzuk bateratu behar diren ere.<br>4.- Espedientean bildutako izapide ezberdinak eta kanpoko parte-hartzea, formulatu diren hizkuntza ofizialean bakarrik dokumentatuta egon ahal izango dira. Hortaz, barne izapide guztiak ez dute zertan hizkuntza bietan egon beharko, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako edo beste era batera bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan idatzitako dokumentuak -itzuli gabe- onartzera behartuta dagoen edozein organo edo erakunde publikora aurkezteko edo bidaltzekoak, eta gardentasunaren ondorioetarako jatorrizko dokumentuen argitalpenerako direnak, betiere, informazio publikoa eskuratzearekin lotutako legediarekin bat etorrita, herritarrek gai horretan dituzten eskubideak bazter utzi gabe.<br><br>**23. artikulua.- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena.**<br><br>1. Espedientea puntu honetara arte izapidetu denean eskatuko da soilik Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, batzorde horren Legeak araututakoarekin bat etorrita. | y sugerencias de los diferentes informes evacuados, y de manera especial las contenidas en los de carácter preceptivo. Se justificarán con suficiente detalle las razones que motiven la no aceptación de las observaciones contenidas en tales informes, así como el ajuste al ordenamiento jurídico del texto que finalmente se adopte.<br>3.- Dicha memoria sucinta analizará igualmente la congruencia de la iniciativa con el resto del ordenamiento jurídico, del vigente en Euskadi y de la Unión Europea, y con otras que se estén elaborando en los distintos departamentos de Gobierno vasco o que vayan a hacerlo de acuerdo con el Plan anual normativo, así como con las que se estén tramitando en el Parlamento vasco y la necesidad de incluir la derogación expresa de otras normas, así como de refundir en la nueva otras existentes en el mismo ámbito.<br>4.- Los diversos trámites y la participación externa que recoja el expediente podrán estar documentados únicamente en la lengua oficial en que se hayan emitido. En tal sentido, no será precisa la reproducción bilingüe de toda la tramitación interna, ni para su elevación o remisión a cualquier órgano o institución pública, radicada en el País Vasco u obligada de otra manera a aceptar sin necesidad de traducción documentos redactados en cualquiera de las lenguas oficiales, ni para la publicación activa de los documentos originales a los efectos de transparencia, sin perjuicio de los derechos que en esta manteria asistan a los ciudadanos conforme a la legislación correspondiente en relación con el acceso a la información pública.<br><br>**Artículo 23.- Dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi.**<br><br>1. Solo tramitado completamente el expediente hasta este punto se recabará el dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, de conformidad con lo que regule |

| | |
|---|---|
| Behin irizpena eskatuta, Batzordeak akatsen bat hautematen badu izapideetan edo nahitaezko txostenen bat falta dela, Batzorde hori arautzeko Legean eta hura garatzeko arauetan aurreikusitakoarekin bat etorrita, Batzordeak irizpena eman ahal izango du edo espedientea itzuli behar bezala izapidetua izan dadin irizpena eman aurretik.<br>2. Aholku Batzorde Juridikora bidaltzen den dokumentazio bera helaraziko zaio Eusko Legebiltzarrari, hala baitago xedatuta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean. | su propia Ley. Si solicitado el dictamen a la Comisión, esta apreciara cualquier defecto en la tramitación o la ausencia de algún trámite preceptivo, será facultad de la misma, de conformidad con lo previsto en su propia Ley y normativa de desarrollo, emitir el correspondiente dictamen o devolver el expediente para su correcta cumplimentación de forma previa a la emisión de su dictamen.<br>2. La misma documentación que se envíe a la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi se remitirá, al mismo tiempo, al Parlamento Vasco, de acuerdo con lo exigido por la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre Ley de Gobierno. |
| **24. artikulua.- Prozedura artxibatzea.** | **Artículo 24.- Archivo del procedimiento.** |
| Izapidearen edozein fasetan eta egindako izapideetako edozeinen ondorioz, komenigarritzat jotzen bada aukera ez-erregulatzailea, gaiaren arabera eskumena duen saileko titularrak edo, kasuan kasu, arauak eragindako sailetako titularrek batera emandako agindu bidez, artxibatu egingo da espedientea horretarako arrazoiak emanez. | Si, en cualquier fase de la instrucción y a resultas de cualquiera de los trámites practicados, se concluye la conveniencia de optar por la solución no regulatoria, por orden del Consejero o Consejera titular del Departamento competente por razón de la materia o, en su caso, por orden conjunta de los titulares de los departamentos concernidos, se archivará el expediente de manera motivada. |
| **25. artikulua - Amaierako onarpena.** | **Artículo 25.- Aprobación final.** |
| 1.- Ezarritako prozedura amaitutakoan, xedapen orokorra organo eskudunari aurkeztuko zaio onar dezan, eta harekin batera behin betiko zioen adierazpena edota hitzaurrea ere bai, xedapen hori egiteko zioak eta haren helburua labur-labur adieraziz, araua egiteko espedientea oinarri hartuta.<br>2.- Goian aipatutako zioen adierazpenean edo hitzaurrean, modu berezian arrazoitu beharko dira izaera zehatzaileko manuak, eskubide subjektiboak edo interes legitimoak mugatzen dituztenak, atzeraeragineko ondoreak ezartzen dituztenak eta aurreko jardunetan erabilitako irizpideetatik edo organo aholku-emaileek emandako irizpenetatik aldentzen direnak, eta, orobat, | 1.- Una vez ultimado el procedimiento establecido, la disposición de carácter general se someterá a la aprobación del órgano competente acompañada de la definitiva exposición de motivos o del preámbulo, según se trate, donde sobre la base que proporciona el expediente de elaboración de la norma, se completará la expresión sucinta de aquellos que han dado origen a su elaboración y la finalidad perseguida.<br>2.- En la exposición de motivos o preámbulo arriba referenciados habrán de ser singularmente motivados los preceptos de carácter sancionador, los que limiten derechos subjetivos o intereses legítimos, los |

| | |
|---|---|
| premia, efikazia, proportzionaltasun, segurtasun juridiko, gardentasun eta efizientzia printzipioetara egokitzen den xedapena.<br>3.- Behin betiko onartu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko diren euskarazko eta gaztelaniazko testu artikulatuaren bertsioen zehaztasuna eta baliokidetasuna bermatzeko, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak ziurtagiri bat jaulkiko du argitaratu aurretik, euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak zehatzak eta baliokideak direla egiaztatzeko. | que establezcan efectos retroactivos y los que se separen del criterio seguido en actuaciones precedentes o del dictamen de órganos consultivos, así como la adecuación a los principios de necesidad, eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia y eficiencia.<br>3.- A fin de garantizar la exactitud y equivalencia de la versión del texto articulado del proyecto en euskera respecto de la versión en castellano, y viceversa, de los textos que hayan de ser finalmente aprobados y que hayan de publicarse en el Boletín Oficial del País Vasco, el documento remitido para su publicación deberá contar con la certificación de la exactitud y equivalencia de la versión en euskera respecto a la versión en castellano, y viceversa, emitida por el Servicio Oficial de Traductores del Instituto Vasco de Administración Pública. |
| **26. artikulua.– Indarrean jartzeko xedapenak.** | **Artículo 26.- Disposiciones de entrada en vigor.** |
| 1.- Kode Zibilaren 2.1 artikuluan ezarritakoa bazter utzi gabe, legeak edo erregelamenduak indarrean sartzeko xedapenak, haiek onartzea edo proposatzea Gobernuari edo Gobernuko kideei dagokionean eta, betiere, jarduera ekonomiko edo profesional bat egiten duten pertsona fisiko edo juridikoei karga edo betebehar berriak ezartzen badizkie jarduera horretan aritzeak, xedapen horiek onartu eta hurrengo urtarrilaren 2an edo uztailaren 1ean sartuko dira indarrean.<br>2. Salbuespen gisa, xedapen orokorrek atzeraeragina eman diezaiekete arauei, deuseztatutako egintza edo xedapenen bat ordezteko direnean, eta interesdunari ondorio mesedegarriak dakarzkiotenean ere bai; betiere, batetik, egintzak eraginkortasuna izateko jarri den data berrian egitatezko baldintzak jadanik existitzen baziren, eta, bestetik, eraginkortasunak kalterik ekartzen ez badie beste inoren eskubideei edo bidezko interesei. Atzeraeraginezko efektuak berariaz | 1.- Sin perjuicio de lo establecido en el artículo 2.1 del Código Civil, las disposiciones de entrada en vigor de las leyes o reglamentos, cuya aprobación o propuesta corresponda al Gobierno o a sus miembros, y que impongan nuevas cargas u obligaciones a las personas físicas o jurídicas que desempeñen una actividad económica o profesional como consecuencia del ejercicio de ésta, preverán el comienzo de su vigencia el 2 de enero o el 1 de julio siguientes a su aprobación.<br>2. Excepcionalmente, las disposiciones de carácter general podrán prever su propia eficacia retroactiva cuando se dicten en sustitución de actos o disposiciones anuladas, así como cuando produzcan efectos favorables al interesado, siempre que los supuestos de hecho necesarios existieran ya en la fecha a que se retrotraiga la eficacia del acto y ésta no lesione derechos o intereses legítimos de otras personas. Los efectos |

| | |
|---|---|
| egongo dira aurreikusita indarrean sartzea aurreikusten duen xedapenean bertan. | retroactivos deberán ser previstos expresamente por la misma disposición que prevea su propia entrada en vigor. |
| **27. artikulua.- Publizitatea eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.** | **Artículo 27.- Publicidad y publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.** |
| 1.- Xedapen orokor arauemaileak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko dira, indarrean sartu eta ondorio juridikoak izateko. Argitaratze hori benetakoa eta ofiziala izango da, erregelamenduz ezarritako bermeen eta baldintzen arabera, eta argitaratze horrek Kode Zibilaren atariko tituluan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritako ondorioak izango ditu. | 1.- Las disposiciones normativas de carácter general habrán de publicarse en el Boletín Oficial del País Vasco para entrar en vigor y producir efectos jurídicos. Dicha publicación tendrá carácter oficial y auténtico en las condiciones y con las garantías que determina el ordenamiento jurídico, derivándose de dicha publicación los efectos previstos en el título preliminar del Código Civil y en las restantes normas aplicables. |
| 2.- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian dagokionean argitaratzeaz gain, Lege honetan aurreikusita dago era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoan argitaratzea, gardentasunaren eta herritarren parte hartzearen eta lankidetzaren ataria den aldetik, eta informazioa lortzeko eta izapideetarako gune segurua den aldetik. Horrela, herritarrei gonbidapena egingo zaie argitaratutako informazioari buruzko iritzia eman dezaten. | 2.- Sin perjuicio de la publicación cuando proceda en el Boletín Oficial del País Vasco, la presente Ley se refiere también a la publicación en la Sede Electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, que responderá a la funcionalidad de portal de transparencia, participación y colaboración ciudadana, y que constituirá un punto de acceso seguro a la información y a la tramitación, invitando expresamente a la ciudadanía para que pueda pronunciarse acerca de la información. |
| Horrez gain, aukerako moduan, argitaratzeko beste bide osagarri batzuk ezarri ahal izango dira, lege honetan edo beste batzuetan aurreikusitakoarekin bat etorrita, barne hartuta Administrazioaren edozein web-orri edo Eusko Jaurlaritzak herritarrei eskaintzen dizkien Gobernu Irekiaren Plataformakoak, non aldibereko elkarrekintza posible izango den. | 3.- Adicionalmente, y de manera facultativa, se podrán establecer otros medios de publicidad complementarios, de conformidad con lo previsto en esta o en otras leyes, incluyendo cualesquiera web de la Administración o de la Plataforma de Gobierno Abierto que ofrece el Gobierno Vasco a la ciudadanía, en la que simultáneamente podrá realizarse la interacción con la misma. |
| 4.- Arauak hobeto ezagutu eta zuzenki aplika daitezela bermatze aldera, Eusko Jaurlaritzak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren bitartez eta indarrean dagoen xedapen bat zati batean aldatzen duen beste bat indarrean sartu eta hiru hilabeteko epean, indarrean diren xedapenen testu eguneratuak eta kontsolidatuak argitaratuko ditu, eta une | 4.- A fin de garantizar el mejor conocimiento y facilitar la correcta aplicación de las normas, el Gobierno Vasco, por medio del Boletín Oficial del País Vasco y en el plazo de tres meses desde que entre en vigor una disposición que modifique parcialmente otra en vigor, publicará textos actualizados y consolidados de las disposiciones vigentes |

| | |
|---|---|
| horretara arte jasan dituzten aldaketak zehaztuko dira bertan.<br>5.- Testu kontsolidatu horietan jasan dituzten aldaketa eta indargabetzeen arrazoi diren arauak zehaztuko dira, eta lineako bertsioan, arau aldatzailearekiko esteka. Orobat, web-orrian argitaratutako testu kontsolidatu bakoitzaren egite data eta zein datara arte dagoen eguneratua adieraziko dira.<br>6.- Argitaratze hori egiteko, bitarteko teknikoek aukera ematen duten neurrian, euskarri informatikoak eta arauen aplikazio-eremuan hedapenik handiena eragin dezaketen telematika-sareak erabiliko dira. | que incorporarán las modificaciones parciales de que hayan sido objeto hasta ese momento.<br>5.- En dichos textos consolidades se señalarán las normas de las que traigan causa las modificaciones y derogaciones que se hayan incorporado y, en su versión online, el correspondiente enlace a la norma modificativa. Asimismo se señalarán la fecha en la que se ha elaborado cada texto consolidado ofrecido en la web y hasta la que está actualizado.<br>6.- Dicha publicación se realizará, necesariamente, en la medida en que los medios técnicos lo permitan, en soporte informático y a través de las redes telemáticas que procuren una mayor difusión en el ámbito espacial de aplicación de las normas. |
| **28. artikulua.- Lege-aurreproiektuak onartzea.** | **Artículo 28.- Aprobación de los proyectos de ley.** |
| 1. Lege-aurreproiektuak Gobernuaren Kontseiluari aurkeztuko zaizkio, azter ditzan; aztertzen diren bilkuran bertan erabakiko du haiek behin betiko onartu eta, kasuan kasu, lege-proiektu gisa Legebiltzarrera igortzea, edo, bestela, azken idazketa egiteko kontuan hartu beharko diren irizpideak ezarriko ditu, bai eta, hala balegokio, behin betiko onartu bitarteko bidean egin beharreko jarduketak ere.<br>2. Eusko Legebiltzarrean izapidetzen ari diren lege-proiektua iraungi egiten bada Legebiltzarra desegin delako edo agintaldia amaitu delako, Gobernura itzultzen badute edo Gobernuak erretiratu, kasu horietan, gaiaren arabera eskumena duen saileko titularrak, egindako izapideak errepikatu beharrik gabe, berriz ere aurkeztu ahal izango dio lege-proiektua Gobernu Kontseiluari, azter dezan; baina, betiere, oraingo testua eta aurretik izapidetu eta onartua izan zena funtsean berdinak badira eta hura onartzeko eman ziren izatezko eta eskubidezko inguruabarrak ez badira | 1. Los proyectos de ley se someterán a la toma en consideración del Consejo de Gobierno, que en la misma sesión decidirá sobre su aprobación final y, en su caso, sobre la remisión al Parlamento como proyecto de ley, o bien establecerá los criterios que hayan de tenerse en cuenta en su redacción final y las actuaciones que, en su caso, hayan de seguirse en su tramitación ulterior hasta dicha aprobación.<br>2. En el supuesto de que el proyecto de ley en tramitación en el Parlamento Vasco hubiera caducado por disolución de este o expiración de su mandato, fuera devuelto al Gobierno o retirado por este, el titular del departamento competente por razón de la materia podrá volver a someter a la consideración del Consejo de Gobierno el proyecto de ley sin necesidad de repetir los trámites ya realizados, siempre que su texto sea sustancialmente idéntico al que fue previamente tramitado y aprobado con anterioridad y no hayan cambiado sustancialmente las circunstancias de hecho o |

| | |
|---|---|
| funtsean aldatu edota igaro den denbora kontuan hartuta, gomendagarria bada hura berrestea eta ondorioak egiaztatzea. | de derecho que acompañaron a la aprobación o el tiempo transcurrido sea tal que haga aconsejable su reiteración y la confirmación de sus efectos. |
| **XEDAPEN GEHIGARRIAK** | **DISPOSICIONES ADICIONALES** |
| **Lehenengo xedapen gehigarria.- Europar Batasunean egin beharreko izapideak.** | **Disposición adicional primera.- Trámites ante la Unión Europea** |
| Lege honetan aurreikusitako prozeduran sartzen dira Europar Batasuneko Zuzenbideak eskatuta Batasuneko organoek edo organoetan egin beharreko izapideak. Izapide horiek arautzen dituzten arauetan egongo dira ezarrita izapide horiek egiteko unea, haien forma eta eragingo dituzten ondorioak. | Se integran en el procedimiento previsto en esta Ley los trámites que deben realizarse ante o por órganos de la Unión Europea en virtud de lo dispuesto en el Derecho de la Unión Europea. El momento, la forma y los efectos que de los mismos se deriven serán los establecidos en las normas que los regulan. |
| **Bigarren xedapen gehigarria.- Gobernuaren betebeharra, lege-proposamenak izapidetzeko Legebiltzarrak egindako lankidetza-eskaerari erantzuteko.** | **Disposición adicional segunda.- Obligación del Gobierno de atender las solicitudes de colaboración que haga el Parlamento respecto a la tramitación de proposiciones de Ley.** |
| 1.- Ganberako erregelamenduak hala aurreikusten badu eta hark xedatutakoarekin bat etorrita, batzorde eskudunak eskatuta eta aurkezten zaizkion lege-proposamenarekin lotuta, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu ahal izango dio lege honetan aipatutako edozein txosten edo memoria egin dezan, eta Jaurlaritza behartuta egongo da modu honetan lankidetzan jardutera dagokion lege-proposamena izapidetzean.<br>2.- Lankidetzan jarduteko betebehar hori zabaldu ahal izango da, Ganberako erregelamenduak aurreikusita duen neurrian, inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa egitera edota gardentasunari buruzko legeriak aipatutako parte hartze prozesuen antolamendura, zehaztuz ebaluazio bakoitzaren irismena, sakontasuna eta analisi-maila, eta aurrez adieraziz ebaluazioa egiteko gutxi gorabehera zenbat denbora behar den. | 1.- Cuando así lo prevea el reglamento de la Cámara y de acuerdo con lo que aquél disponga, el Parlamento vasco podrá encargar al Gobierno vasco, a instancia de la comisión competente y en relación con las proposiciones de ley que ante ella se presenten, la evacuación de cualquiera de los informes o memorias a los que se refiere esta Ley, estando el Gobierno obligado a colaborar de esa manera en la tramitación de la correspondiente proposición de ley.<br>2.- Esta obligación de colaboración será extensiva, en la misma medida en que ello tenga cabida en el reglamento de la Cámara, a la realización de la evaluación previa de impacto o a la organización de los procesos participativos a los que se refiere la legislación de transparencia, determinando así mismo el alcance, la profundidad y el nivel de análisis de cada evaluación, así como una estimación previa del tiempo necesario para su elaboración. |

| | |
|---|---|
| **XEDAPEN IRAGANKORRA** | **DISPOSICIÓN TRANSITORIA** |
| Lege hau indarrean sartu aurretik hasitako prozedurak lehengo araudiaren arabera izapidetuko dira amaitu arte. | Los procedimientos iniciados con anterioridad a la entrada en vigor de la presente Ley se tramitarán hasta su conclusión de acuerdo con la normativa anterior. |
| **XEDAPEN INDARGABETZAILEA** | **DISPOSICIÓN DEROGATORIA** |
| Indargabetuta geratzen dira abenduaren 22ko 8/2003 Legea, Xedapen Orokorrak egiteko Prozedurarena, eta lege honetan xedatutakoaren aurkakoak diren bestelako xedapenak. | Queda derogada la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, y cuantas otras disposiciones se opongan a lo dispuesto en esta Ley. |
| **AZKEN XEDAPENAK** | **DISPOSICIONES FINALES** |
| **Azken xedapenetatik lehenengoa.- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legea aldatzea.** | **Disposición final primera.- Modificación de la 9/2004, de 24 de noviembre, de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi.** |
| 1. Lege-proposamenak izapidetzean Legebiltzarrak egindako lankidetza-eskaerei Gobernuak erantzuteko duen betebeharra kontuan hartuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legean, 3. artikuluari ñ) letra gehitu zaio eta honela idatzita geratu da: | 1. De acuerdo con la obligación del Gobierno de atender las solicitudes de colaboración que haga el Parlamento respecto a la tramitación de proposiciones de ley, se introduce una nueva letra ñ) en el artículo 3 de la 9/2004, de 24 de noviembre, de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, que queda redactado de la siguiente manera: |
| *“ñ) Eusko Legebiltzarrak kontuan hartutako lege-proposamenak, baldin eta, Ganberako erregelamenduak xedatzen duena betez, Legebiltzarreko Mahaiak hala eskatzen badu, izapidetzeko eskumena duen Batzordearen eskariz.»* | *“ñ) Proposiciones de ley tomadas en consideración por el Parlamento Vasco si, con respeto de lo que disponga el reglamento de la Cámara, lo requiere la Mesa del Parlamento, a instancias de la Comisión competente para su tramitación”.* |
| 2. Aldatu egin da Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legeko 11. artikuluaren 3. apartatua eta honela idatzita geratu da: | 2. Se modifica el apartado 3 del artículo 11 de la 9/2004, de 24 de noviembre, de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, que queda redactado de la siguiente manera: |
| *“3.- Batzordeko edozein kidek aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuren baten berri izanez gero, batzordeari* | *“3.- Cualquier miembro de la comisión que tenga conocimiento de la* |

| | |
|---|---|
| *jakinarazi beharko dio, eta batzordeak, kasu bakoitzaren nondik-norakoak aintzat hartuz, ebatzi beharko du eragindako bokalak gaia aztertzeari eta irizpena bozkatzeari ekin behar dion ala ez. Auzia aurkezten den bilkuran hartuko du batzordeak dagokion erabakia, aldez aurreko txostenaren beharrik gabe. Nolanahi ere, abstenitzeko arrazoia bada xedapen orokorrak prestatzen edo egiten aurretik parte hartu izana, kide horiek Batzordeko lehendakaria edo lehendakariordea badira eta Administrazio aktiboan duten karguengatik egokitu bazaie haiek egitea edo izapidetzea, eskubidea izango dute batzordearen aurrean agerraldia eskatzeko eta informazioa emateko. Orobat, agerraldi horretan bertan edo abstentzioa planteatzeko unean, abstentziorako arrazoia egon arren, Osoko Bilkurari edo gaiaz arduratzen den Atalari eskatu ahal izango diote dagokion irizpena aztertzen edo erabakitzen parte hartzeko aukera izatea, hitz egiteko eskubidearekin baina botoa emateko eskubiderik gabe, proiektuaren helburuak, aztertutako aukeren bideragarritasun praktikoa edota plantea daitezkeen bestelako aukerak argitzeko".* | *concurrencia de alguno de los supuestos previstos en el apartado anterior debe ponerlo en conocimiento de la comisión, a fin de que ésta decida, atendiendo a las circunstancias concretas de cada caso, si el vocal o la vocal a quien afecte debe o no abstenerse del estudio y votación del dictamen correspondiente. La comisión adoptará el acuerdo que proceda en la misma sesión en que la cuestión se plantee, sin necesidad de ponencia previa. No obstante, cuando la causa de abstención sea la previa participación en la preparación o elaboración de disposiciones de carácter general y recaiga sobre el Presidente o el Vicepresidente a quienes les hubiera sido encargada su elaboración o tramitación en virtud de los cargos que ocupan en la Administración activa, será derecho de los mismos solicitar su propia comparecencia informativa ante la comisión. Así mismo, en esa misma comparecencia o en el momento de plantear su abstención, podrán igualmente solicitar del Pleno o de la Sección encargada del tema la posibilidad de participar, a pesar la causa de abstención concurrente, con voz pero sin voto, en el estudio o deliberación del dictamen correspondiente, al objeto de clarificar los objetivos del proyecto, la viabilidad práctica de las opciones barajadas o las alternativas que puedan plantearse".* |
| **Azken xedapenetatik bigarrena.- Indarrean sartzea.** | **Disposición final segunda.- Entrada en vigor.** |
| Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean. | Esta Ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco. |